

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DIDAKTIKA OROKORRA:

PRAKTIKEN TXOSTENA

PEDAGOGIA, 32.2 taldea
2019/2020 ikasturtea

Irakaslea: Peio Aramendia

AURKIBIDEA:

1) Testu liburuaren azterketa.....	2
2) Diputazioko proiektua.....	10
3) Kasu praktikoak.....	16
● 1.A.....	16
● 1.B.....	19
● 2.A.....	20
● 2.B.....	23
● 3.A.....	24
● 3.B.....	26
● 4.A.....	27
● 4.B.....	29
● 5.A.....	31
● 5.B.....	34
4) Haur hezkuntza esperientzia.....	36

1. TESTU LIBURUAREN AZTERKETA

LIBURUA: **Maite ditut, maite, gure bazterrak!** GAIA: Gure herriko geografia.

IKASMAILA **Lehen hezkuntzako 4. maila**

1.-AURREZAGUTZAK-AURREBALUAZIOA

Gaia lantzen hasi aurretik, ikasleak aurrerago ikasiko dutenaren inguruan zer dakiten jakiteko eta haiek honetan ohartarazteko 6. orrialdean “Zer dakizu eskualdeari buruz?” galdera batzuk planteatzen dira.

Honakoak aurre-egagutza maila ikusteko balio dute, baita eta ikaslea gaian zehar landuko duenaren ideiei bat egiten hasteko. Galderak errazak dira eta ez dira teorikoegiak, esperientziarengatik ere galdetu egiten dute. Modu honetan, ikasleak uste zuena baino gehiago jakin dezakeela ohartarazteko balio dezakete.

2.-GARAPEN OSOA

Eskola batean garapen osoa landu dadin, 6 dira kontuan hartu behar ditugun arloan. Gai honetan zehar, hauetako asko landu egiten dira, batzuk besteak baino nagusitasun gehiago hartzen duten harren.

Lehenik eta behin, arlo kognitiboa maiz lantzen dela argi dago. Izan ere, gaitasun hau lantzeko ariketa ugari daude liburuxkan zehar:

10. or.: definizioa bilatzea; 11. or.: aztertu eta erantzun ariketak; 15. or.: definitze ariketa; 17. or.: hiztegiaren bilatzeko ariketa...

Jarraituz, komunikazio arloari ere garrantzia nabarmena ematen zaio. Izan ere, taldeetan lan egin eta hizkuntzarekin zerikusia daukaten ariketak aurkitzen ahal ditugu:

16. or.: talde txikietan iritzi eztabaidarako ariketa; 24. or.: Abestia dugu, irakurmena eta ahozko komunikazioa lantzeko; 35. or.: Ez ohiko hizkuntza den ingelesa lantzeko sekzioa; 36. or.: Irudimena eta sormena lantzeko, adierazpen artistikoa lantzeko ariketa dugu.

Zentzu mugimenezko arloari dagokionez, honi erantzuten dioten ariketan badaude, asko ez diren arren. Mapak lantzen diren heinean, orientazioa lantzea garrantzitsua da. Horretarako, 19. orrialdean Elkartasun jolasean orientazioa eta espazioaren antolaketa lantzeko “altxorraren bila” ariketa proposatzen dute. Bestetik 35. orrialdean, azkeneko ariketan, ingelesa lantzearekin batera eskolan leku bat erabaki eta horretara iristeko zure kideei adierazpenak ematen joateko ariketa dago. Honekin Mugimendua, kokapena zein adi egotearen beharra landuko dira.

Gizarteratze arloari dagokionez, nahiko modu xumean lantzen dela esan genezake. Izan ere gaitasun hau lantzea soilik talde txikietan egitea proposatzen diren ariketetan betetzen da. Adb. 16. eta 23. orrialdeetan ikusten ahal ditugu. Hala ere, ez dago elkartasuna edo

elkarlana sustatzen duen ariketarik. Hau da, talde txikietan lan egitean norbera bere iritzia emateko espazioa sortzen da baina ez dago kooperazio edo hartu eman sakonagorik.

Azkenik, ekintzailletza arloari dagokionez esan genezake liburuxka orokortasun batetik aztertuz gero, aurrera joan ahala lantzen den gaitasuna dela. Izan ere, liburuxkaren helburua proiektu txiki bat egitea da: gure herriko txosten bat eraikitzea. Horretarako, ikerketa, informazio bilaketa, galdeketak, diagnostikoak eta bestelako ekintzailletza lanak egitea beharrezkoa izango da.

Horren adibide da 11. orrialdean norberaren herria mapan kokatu eta eskualdearen inguruko galderak erantzutea edota 20. / 21. orrialdeetan entziklopedia zein turismo bulegoan herriaren inguruko informazioa lortzeko proposatzen duten bilaketa eta analisi ariketa

Aipatzekoa da arlotz arlo afektiboa nahiko baztertua uzten den gaitasuna dela. Egia da, zeharka gure herriarekiko, Euskal Herriarekiko estimu bat sortu eta indartu egiten dela. Gainera 27. orrialdearen bukaeran haserrealdien inguruko galdera batzuk luzatzen ditu. Hauek adimen emozionala lantzeko baliagarriak bezala kontsideratzen ahal ditugu, izan ere gure emozioak identifikatzen eta gure jarrerak aztertzeraz bultzatzen gaitu. Hala ere txostenean zehar ez dago norbanakoaren sentimendu edo egoeraren inguruko lanketarik egiten.

Hortaz, ondorioztatu dezakegu testu liburu honetan gehien lantzen diren gaitasunak kognitiboa (testu liburu gehienetan bezala) eta komunikatiboa direla. Bestetik, arlo afektiboaren lanketa hanka motz geratzen dela ikusi dugu eta honetan sakontzeko beharra dago. Bestelako arloak landu egiten dira gehiegizkotasunik gabe.

3.-KONPETENTZIAK-HELBURUAK

Labur-labur esanda, testu liburu honen helburuak bi direla esan genezake. Lehenengoari dagokionez, liburuxkaren helburua proiektu txiki bat gauzatzea da: Gure eskualde / herriaren inguruko dosierra. Helburu honetara iristeko ekintzailletzaren bitartez informazio bilketa bat egingo dugu. Horretarako gaitasunak hartzen joateko ariketak egongo dira liburuxkan zehar. Liburuxka landu ahala garatuko diren konpetentziak modu argi batean 8. eta 9. orrialdeetan azalduz daude.

Bestetik, arlo afektibo eta jarrerazko edukiei dagokionez, Euskal Herriaren ideia indartzea helburu dela esan dezakegu. Horretarako Euskal Herriko mapa ezberdinak (12, 13 or.) eta bestelako informazioa lantzeko aukera emango digu (20, 21, 22. orrialdeetan kultura, tradizioen... lanketa ematen da).

Alderdi hau aipatzea garrantzitsua da Espainiako mapan oinarritu ordez ofizialki existitzen ez den Euskal Herriko mapan oinarritzen delako liburuxka, beraz hor helburu ideologiko argia dago.

4.- EDUKIAK

Kapitulu honetan prozedurazko edukiak gailentzen dira. Kapituluaren funtsa norberaren herriaren txosten bat eraikitzea da. Horretarako prozedura bat jarraitu beharko du ikasleak alderdi ezberdinak aztertuz.

Honakoa adibidez 10-11 orrialdeetan argi ikusi dezakegu non eta norberaren eskualdea

mapan kokatu eta orientatu behar duen. Era berean 32-33 orrialdeetako ariketa ere, prozedurazko ariketa argia da. Izan ere, talde txikitan batu, beheko aldean dauden terminoak irakurri, marrazkia begiratu eta ondoren irudi bakoitza dagokion izena eta zenbakiarekin lotzea eskatzen da. Hau da, pausoka eta erlazioak eginez burutu egiten den ariketa da.

Bestetik, aipatzekoa da ere kapitulu osoan zehar mapek Euskal Herriko lurraldera mugatzen diren heinean aberriarekiko jarrera bat bultzatu egiten dela. Nazio baten inguruko sentimendu bat sustatu egiten da. Berez Espainiar estatuan bizi garen arren Euskal herria gure aberria bezala aipatzen da hortaz, Espainiarekiko konfrontazio bat ematen da txosten honetan.

Adibide gisa, 12 eta 13. orrialdeetan agertzen diren Euskal Herriko mapa fisiko eta politikoa hartzen ahal ditugu. Baita 30 eta 31. orrialdeetako Euskal Herriko klimen mapa.

5.-METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, egoeretan oinarritako metodologia dela argi dago. Izan ere, bata bestearen atzetik eta hauen artean lotura duten urratsen bitartez gauzatu egiten da edukia. Lehenik eta behin, ikasleak landuko den gaia bere aurrezagutzekin lotu ditzan 6. orrian eskualdearen inguruan zer dakien ikusteko galdera batzuk luzatu egiten zaizkio. Gerora, hurrengo orrialdean, zazpigarrenean, proiektua izango dena antolatzeko azalpena dago. Hau da, proiektua bukatzean bete beharko dituen sekzioak eta egin beharreko lana aurkeztu egiten dira.

Honen aurretik, aipatu beharra dago 4. eta 5. orrialdeetan komiki bat daukagula. Honakoa gaiari sarrera bat emateko erabiltzen da. Honekin, egoera kontextualizatu batean gaian zehar landuko diren elementu ezberdinei erreferentzia egiten zaie. Hala nola, mapa, eskualdeari buruzko informazioa, iparrorratza aipatu egiten dira.

Biñeta hauetan agertzen diren pertsonaiak Txanela liburuxka gehienetan agertzen dira. Hauek komikiaz egiteaz gain, gerora liburuxkan zehar agertuz doaz azalpen ezberdinak ematen. (6. orrialdean argi ikusi daiteke).

Gauza bera geratzen da 34. orriko komikiarekin, gerora datorren ariketei testuinguru eta egoera zehatz batekin sarrera egiten die: Ingeleseko ariketa, artearen inguruko ariketa...

Hirugarren pausua gaiaren inguruko informazioa bilatu eta kudeatzea da. Honakoa txostenaren atal handiena hartu egiten du. Hau burutzeko, ariketa ezberdinak planteatu egiten dira. Hala nola: 11. or. eskualdea eta probintziaren informazioa lortu, 20./21. or. turismo bulego eta entziklopedietean informazioa bilatu eta kirola eta natura arloa aztertzea eskatzen dute, 22. or. festak eta bertako produktu inguruko informazioa...

Gerora, 4. urratsa egoerari irtenbidea ematea da, lana bukatzea. Honetarako, 37. orrialdean txostena bukatu eta txangoa prestatzeko azken deitaeleak ixteko irizpideak ematen dira (azala eta aurkibidea egin, noiz eta nora joango diren...).

Jarraian, behin irteera egina, 37. orrialdeko bigarren zatian (azken 3 ariketak) txostena bukatuta azaldu eta ondoriak egiteko 5. urratsa betetzen da. Lehenik eta behin balorazio txiki bat egiten da, gerora, etxekoei egindako lana azaltzeko animatu egiten zaie ikasleei.

Azkenik, egindako lana erakusteko, 36. orrialdeko ariketa, tenperazko lanak, eskolan zehar jartzea proposatzen da, baita artistaren inguruko argazki eta informazioa

Azken urratsa, ebaluazio eta hobekuntza dugu. Honetarako, 37. orrialdean jada txostenaren inguruan ebaluazio txiki bat egiten da. Hala ere, hurrek, ikasi dutenaz ohartarazteko eta ea benetan informazioa barneratu duten ebaluatzeke, 38., 39. eta 40. orrialdeetan errepaso galdera ezberdinak planteatzen dira, landutako eduki ezberdinak kronologikoki gogoraraziz.

6.-BALIABIDEAK

Liburuan zehar planteatzen diren ariketa gehienak aurrera eramateko, gehienbat baliabide materialak dira beharrezkoak. Izan ere Txanelaren liburuxka bera ere baliabide material bat da. Proiektua gauzatzeko, ikasleak papera, boligrafoak, azala egiteko margoak eta bestelako material suntsikorra erabili beharko du. Aipatzekoa da 18. orrialdeko iparrorratza eraikitzeke orratza, kortxoa imana... bezalako materiala beharko dituztela (norbera etxetik ekarria ziurrenik). Era berean 36. orrialdeko ariketa gauzatzeko kartulina eta tenperak beharko dituela. Honakoa ziurrenik ikastetxeak erraztu beharko du.

Baliabide teknologikoak ere kontuan hartzen dira. Izan ere, normalean komikiak audio batekin batera irakurtzen dira eta 24. orrialdeko abestia entzuteko ere CDak irakurtzeko gailuren bat beharko da. Era berean, gaur egun informazioa bilatzeko ordenagailura jotzea ohikoena da. Hortaz eskulaldearen informazioa bilatzeko gailu hauek erabiliko direla haintzat hartu ditzakegu.

Baliabide funtzionalei dagokionez, liburuxkak ez du proiektua denboralitzatzen. Ziurrenik irakaslearen erabakia izango da eta ikasleen erritmo eta beharretara egokituko du zein tempusetan landu behar de gaia.

Bestetik, espazioei dagokionez, ikasleek eskola barruko zein kanpoko espazioak erabiliko dituzte. Lehenik eta behin, arlo kongitiboari lotutako ariketa guztiak ikasgelan egingo dira. Baina honetaz gain, 19. orrialdeko elkartasun-jolasa jolastokian egitea planteatzen da eta 35. orrialdekoa ere eskolan zehar ere. Azken biak orientazio ariketak dira beraz zentzuzkoa da espazio handiagoak erabili behar izatea.

Bestetik, ikaslea eskolaz kanpo liburutegi zein turismo bulegoa bezalako lekuetara joan beharko du informazio bila.

Azkenik gainera, proiektuaren helburua herrian zehar txango bat egitea da beraz, herri osoa hartuko da espazio bezala, honetan zehar ibilbide bat egingo delako. Izan ere, helburua herri / auzoaren inguruan jakintza zabaltzea da. Hortaz ez du zentzurik eskola barruan geratzea herria ezagutzeko aukera hoberena herrian zehar ibiltzea denean.

Azkenik, giza baliabideei dagokionez hiru subjektu mota identikatu ahal ditugu. Irakaslea: Honakoa gaia bideratzen, klasea dinamizatzen eta haurren eskola barruko beharrei erantzun beharko die.

Gurasoak: Haurra eskolatik kanpoko jarduerak egiten lagundu beharko dute honek laguntza beharrez gero (zalantzak argitu, turismo bulegora lagundu...)

Bestelako agenteak: Honen barruan herriaren egunerokoan lan egiten dituztenak sartzen

ahal ditugu (turismo bulegoko langilea, liburutegiko langileak...). Azken finean ikasleak hauengana jo beharko du beharrezkoa duen informazioa lortzeko

7.- IKASTEN IKASI ERREPASOA

Liburuxkan errepasso galderak 38, 39 eta 40. orrialdeetan agertzen dira. Hauek ikaslea proiektuan zehar hartu dituen gaitasunetaz ohartarazteko erabiltzen dira.

Galderak liburuxkuaren orden bera jarraituz daude antolatuak. Hau da, hasieran eskualdearen inguruan hitz egin, gero mapa marraztu ondoren klimen inguruko galderak... eramandako prozesuaren ordena errespetatzen dute eta landutako gai guztiak aipatu egiten ditu.

Era berean aipatzekoa da ariketa bakoitzerako metodologia ezberdin bat erabili egiten dela (teorikoa, marraztea, kontzeptu mapa, grafiko, taulak...). Beraz ariketak oso ezberdinak dira haien artean eta egiterako orduan ez dira astunak izango.

Beraz 38 eta 39. orrialdeetan gaien zehar jorratutako eduki garrantzitsuak lantzen direla esango nuke.

Hala ere, aipatzekoa da 40. orrialdeko ariketek ez dutela zerikusirik gaiaren inguruko edukiekin. Hauek hizkuntza eta idazketarekin lotura duten hiru ariketa dira. Egia da proiektua idatziz egin duten heinean, ikasleek idazkera gaitasunak hartuko dituztela. Hala nola ergatiboaren edo puntuazio marken erabilpen egokia.

Hala ere, lekuz kanpo daudela sumatzen ditut. Edo bestela, beste modu batean planteatuko nituzke, esaterako ariketak gaiaren inguruko informazioarekin lotuz. Izan ere, ariktaren helburua egokia izaten ahal den arren azken biek ez dute inongo loturarik landutako gaiarekin.

8.-ANIZTASUNAREN TRATAERA

Aniztasunari erreparatzeko lehenik eta behin liburuxkan zehar agertzen diren pertsonaiak aztertuko ditugu. Hauen artean, bi izan ezik pertsonai guztiak txuriak dira azalez. Haien artean adin, sexu eta itxura ezberdinekoa dira: Bi anai arrebak ile-horiak dira ama bezala, 8 eta 9. orrialdean emakume heldu bat eta gizon gazte bat dugu, 34. orrialdeko komikian gizon zahar bat ageri da...

Pertsonen arteko aniztasun adierazle bezala soilik bi pertsonai daude. Lehenengoa, hazpegi asiaticoa dituen neskatxoa dago. Pertsonai honek nahi protagonismo dauka bi anai arrebekin batera. Izan ere, 4-5 eta 34. orrialdeetako komikietan ageri da eta gerora txostenean zehaz azalpenak ematen aurkitu dezakegu (adb. 14. eta 20. orrialdeetan). Bestetik mutiko beltzaran bat dago. Bakarrik bitan ageri da: 4. orrialdeko komikiaren lehenengo biñetan eta 19. orrialdean. Beraz ez du inongo protagonismorik.

Familia ereduari dagokionez ezin dugu gehiegi hausnartu ez baitira familiarik agertzen. Aipatzeko bakarra, 4. orrialdeko azken biñetan anai arriben familiako gurasoak bikote heterosexual bat dela da. Hau da, normaren barruko familia bat dira: familia zuria, bikote

heterosexuala eta bi seme alaba. Hala ere, honakoa liburuxkan zehar ez da gehiago errepikatuko.

Azkenik kulturari dagokionez, aipatzekoa da liburuxka hau espreski Euskal herria eta bere ezaugarrien inguruan hitz egiten duela (20, 21, 22. orrialdeetan argi ikusten da). Beraz ez dago kultura aniztasunik.

Beraz, hau guztia ikusita esan dezakegu pertsonaien arteko aniztasuna eskaxa dela eta honakoa “normatik kanpoko subjektibitatei” protagonismo gehiago ematen konponduko zela. Adibidez mutil beltzarana gehiagotan agertuz. Bestetik, Euskal Herriaren inguruko liburuxka den arren ez da bestelako kulturarik aipatzen. Beraz aniztasun kulturala sustatzeko, kulturen arteko konparaketa ariketa bat sartu ahalko lukete.

9.-ZEHARLERROAK

Bestelako aspektu sozialei dagokionez, generoaren problematika argi bat dago liburuxka honetan. Izan ere 20/21. orrialdeetan gure kulturaren inguruan hitz egitean, agertzen diren erreferente guztiak gizonezkoak dira. Bai estatuetan baina baita kirolean dabilzan argazki guztietan ere. Honakoa larria da gure herriaren ohorezko erreferentzia bezalako pertsona guztiak maskulinoak direla. Honakoa miresten ahal ditugun emakumeak lekuz kanpo uzten dituzte. Honakoa eduki androzentrismo dela esan dezakegu.

Egia da lan-talde txikietan lan egiteko aukera asko eskaintzen direla txostenean zehar eztabaidak egiteko. Orientazio jarduerak egiteko ere (35.or) talde txikietan lan egitea proposatzen da. Behar, elkarlana eta era berean bizikidetzeta eta errespetuaren beharra adierazten da. Balore hauek gabe ikaskideen artean lan egitea ezinezkoa litekeelako.

Azkenik, herriaren analisia egiten den heinean, gizarte baloreak, kontsumo eta ekologiaren inguruan hausnartzearen falta sumatzen da. Egia da 22. orrialdean bertako produktuen inguruko galdera bat luzatzen dela baina ez zaio berebiziko garrantzirik ematen. Proposamen moduan, ea herrian birziklatzen den, ea zonalde berdeak dauden edota denda txikien mapa bat egitea proposatu ahalko zen. Modu honetan haurra herriak dituen alderdi onak eta hobetu beharrekoak ikusi ditzan.

10.-ALDERDI EMOZIONALAK

Alderdi emozionala txostenean gehiegi agertzen ez den gaitasuna da. Hau da, haurra nola sentitzen den eta emozioen lanketari ez diote garrantzi gehiegirik ematen. Txosten osoan zehar, bi ariketetan bakarrik aurkitu dut emozioen lanketa:

1. 26 eta 27. orrialdeetan ipuin baten inguruko ariketa bat planteatzen da. Honakoa haserrealdiaren inguruan hitz egiteko aukera luzatzen die ikasleei, adibide garbiena

azken jarduerako galderak dira. Modu honetan, haurra haserrea nola bizitzen duen hausnartzen du: Zergatik haserretzen da, nola adierazten duen, ea noizbait damutu den, irtenbide ezberdinak pentsatzea... Azkenean bere burua pixka bat hobeto ezagutzeko balioko dio.

Era berean aipatzekoa da ere, 27. orrialdeko goiko aldean ikasleari ea ipuina gustatu ahal zaion eta ea zer den gehien gustatu zaiona galdetzen zaio. Galdera hauekin ikaslearen iritzia haintzat hartzen dela baloratu dezakegu, guk eta baita haurra ere. Hala ere, desegokia liteke galdetzeagatik galdetzea. Izan ere, erantzunak aztertu beharko genituzke orokorrean ariketa egokia den eta haurrek gustuko duten jakiteko. Etorkizun batean berriz ere egiteko edo ez.

2. Azkenik, 37. orrialdean haurrak proiektua ixteko eta balorazioa egiteko hainbat galdera eta orientabide daude. Hala nola, hirugarren galderan, liburuxka eta irteerari buruz ea ondo pasa duten, interesgarria iruditu zaien galdetu egiten da. Baita ikaslea eginiko lanaz ohartzeko galderak daude: Eskualdea hobetu ezagutzen duzu?, familiari azaltzeko kapaza izango zinateke?.

Modu honetan haurra egindako lanaz ohartu eta harro sentitzeko balioko du.

Beraz, alderdi emozionala bi jarduera hauetan lantzen bada ere, orokortasun batetik aztertutik alde batera uzten den gaitasuna da, ez da behar adina lantzen eta gehiago landu beharko liteke. Izan ere, alderdi emozionala zaintzea haurraren ongizaterako ezinbestekoa daukagu.

11.-ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Orokorrean Txanelako liburuxka hau zehazten dituen helburuetarako ondo planteatua dagoela esango nuke. Izan ere, gure herri eta eskualdeen inguruko informazioa biltzeak, honekiko atxikimendu bat sortu egiten du. Gure herria hurbilago sentitzea eta honekiko maitasuna, harrotasuna eta errespetua handitzea lortu egiten du liburuxka honek.

Hala ere, badaude aldatu eta hobetu ahalko liratekeen aspektuak. Hauen artean, emakumearen presentzia bermatzea (bai pertsonaietan eta erreferente kulturaletan), aniztasunaren trataera (euskal kultura gurea den arren, gaur egun euskal herrian kultura ezberdinak daudela onartu eta errespetatzen erakustea), afektibitatearen arloa gehiago lantzean (haurraren emozio eta sentimenduak)...

Era berean, txostena gaitasun orokorrak dituzten haurrei zuzenduta dagoela aipatu beharra dago. Hau da, ez dago aniztasun funtzionala duen pertsona beti egokitua. Eta honetaz a parte, ez da kolektibo honekin lantzeko aukerarik agertzen txostenean zehar. Honi erantzuna emateko, herriaren azterketa egitean herrian zehar dauden proiektu eta fundazioak aurkitu eta hauen eginkizunak aztertzea proposatu ahalko zen. Baita fundazio hauek bisitatzeko aukera ere luzatu ahalko zen.

Beraz, markatutako helburuak metodologikoki ondo planteatuak dauden arren, zeharka landu beharreko baloreak falta direla eta garapen osoari erantzuten aspektu ezberdinak faltan somatzen direla ondorioztatu dezakegu txanelaren liburuxka honetatik.

12. GARAPEN OSOAREN ELEMENTU POSITIBO / HUTSUNE

Bigarren puntuaren balorazio bat eginez gero, hau da, txostenak garapen osoari erantzuten ote dion aztertu ondoren, hainbat dira aurkitu ditugun elementu positibo eta hutsuneak.

Aurretik esan bezala, arlo kognitiboa erabat jorratua dagoela esan dezakegu. Gainera, eredu ezberdineko ariketak planteatzen dira gaien zehar: definitu, identifikatu, arrazoitu...

Zentzu-mugimenari dagokionez, txostenean zehar gaitasun hau lantzen dituzten ariketak badaude. Hauetan orientazioa, koordinazioa, espazio eta denboraren antolamenduan landu egiten da. Beraz, ariketa asko ez diren arren beharra asetzen dela esango nuke. Era berean, komunikazio arloaren beharrak asetzen direla esan genezake. Izan ere, idazmena eta irakurmena asko lantzen da eta ahozko adierazpenerako, talde txikietan elkartu eta eztabaidatzeko ariketa asko planteatzen dira.

Hala ere, honekin loturik, gizarteratze arloaren lanketa xumezia dela esango nuke. Izan ere, talde txikietan lan egitean, norbera bere posizio eta ikuspuntutik hitz egiten du, modu indibidualean. Honetaz gain, kooperaziorako ariketak sartu beharko liratekela uste dut, errespetua, talde lana, konpromezua eta bestelako baloreak lantzeko.

Ekintzailtzari dagokionez, gaia jorratuz ahala lantzen den alderdia da. Izan ere gaiaren helburua eskualdearen inguruko txosten bat sortzea da. Beraz, informazioa eskuratzeko, ikerketa, aurkikuntza, galdeketa eta analisi lana egin beharko dut ikasleek. Zeharka lantzen den alderdia da.

Hala ere bestelako ariketak planteatzea ere interesgarria liteke, eskualdearen inguruko beste ikuspuntuko batzuk lantzeko. Adibidez, aiton-amonei bere garaian herria nolakoa zen galdetzea gaur egungo egoerarekin konparatu eta aldaketak aztertzeko. Edo, herriak dituen aspektu txarrak identifikatu eta hauei soluzioa bilatu.

Azkenean txostena ikuspegi tradizionaletik jorratzen da eta ekintzailtzari dagokionez aldaketa eta hobekuntzan lan egitea ere garrantzitsua da.

Azkenik, aurretik aipatu bezala eta 10. puntuan sakonago adierazi dudana bezala, afektibitatearen arloa gutxi lantzen da. Haurrari bere emozio eta sententzioen inguruan hausnartzeko aukera oso gutxi ematen zaizkio txostenean zehar. Honakoa lantzea garrantzitsua da haurra nola sentitzen den jakiteko (bere buruarekin, ikaskideekin, burututako lanarekin...), ea gustura lan egiten ari den jakiteko, bere beharrak zeintzuk diren identifikatu eta erantzuna emateko...

Bestela, haurrak lana derrigorrezkoa delako burutu egiten du eta bere gaitasunak txostenak eskatzen duenari moldatu behar da, txostena norberaren gaitasunei egokitu beharko lukeen arren.

Beraz, afektibitatearen arloa gehiago landu behar dela atera dezakegu ondorio grisa. Honekin, haurra bere burua ezagutu eta bere emozioak konpartitu eta gestionatzeko gaitasuna hartzea izango dugu helburu.

2. DIPUTAZIORAKO PROIEKTUA

Eskatzailea: Auzoz-auzo elkarte.

IFK: C317194732 **PK:** 31015

Helbidea: Atarrabia etorbidea, 15, behekoa

Harremanetarako pertsona: Iraia Garcia

Telefonoa: 948166024

Helbide elektronikoa: auzoabiziarazi_@gmail.com

Kontu korrontea: ES64 3035 3784 01 7455367923

AUZOA BIZIARAZI PROIEKTUA

0. DIAGNOSTIKOA

Txantrea auzoa Iruñean kokatzen den auzo zaharretariko bat da. Honakoa Frankoren aginduz, landa exodotik etorritakoak hartu ahal izateko eraiki izan zen. Bere hasieratik langile klasearen auzoa izan da eta jarraitzen du izaten .

Baina argi dago garai batean auzo xume honetan Iruñeako langileak bizi baziren ere, gaur egungo langileriraren profila asko aldatu dela. Hau da, krisia, gerra edo ezer ez izateagatik migrazioak areagotu dira. Ez da harrizkoa perfil berri hau auzo merkeetan bukatzea, azkenean permititzen ahal duten bizimodua hemen baitago.

Hala ere, auzoa gaur egun kulturalki oso anitza den arren, ez dago baturik. Zonaldearen arabera talde sozial bat edo beste kokatzen da: Auzoaren erdigunean eta “betiko etxeetan” bertako jendea bizi da, hemengo familiak eta bizi maila nahiko altua dutenak. Gerora hegoalderagoko blokeetan geroago etorritakoak, etorkinak zein bizi maila baxuagokoak (ijitoak, afrikarrak...). Eta azkenik, iparraldeko eraikinetan, Orvinan, kanpotar asko bizi dira (arabiarrak, latino amerikarrak, ukrainarrak...). Izan ere, gobernuaren menpeko etxebizitza ezberdinak aurkitzen dira hemen.

Egoera zein den ikusirik, gure elkarteak auzokideen artean arazo zehatza identifikatu du: Kultur aniztasuna eta komunitate izaeraren falta. Honekin adierazi nahi duguna, ikerketa soziologiko bat egin ondoren, azpialde bakoitza elkartzeko espazio zehatzak (plazak, tabernak...) eta ekintza zehatzak (voleyballera jolastu, dantzatu, dominora jolastu, kartetara....) dituztela izan da.

Honen aurrean, ezinbestekoa ikusten dugu auzoan sare komunitario bat eraikitzea. Alde batetik, bazterketa arriskua izan dezaketen pertsonak integratu, auzokideen artean elkar ezagutu eta bizikidetzat sustatu ahal izateko. Bestetik, auzoan egoten ahal diren arazo komunei kolektiboki erantzuteko.

Beraz, azaldutakoa helburu izanik, honakoa da auzoa biziartzeko gure proiektuaren proposamena.

1. PROIEKTUAREN HELBURUAK

1. Kultur ezberdinen (latinoamerikarra, musulmanak, ijitoak, euskalduna...) inguruko ekimenak antolatzea, auzoko kultur aniztasunaren errealitatea ikustarazteko
2. Auzoan dauden elkarte ezberdinen (kulturalak, sozialak, gizarte zerbitzuak, aktibistak...) koordinazioa antolatzea eskaintza kultural anitza eta bateratua eraikitzeko.
3. Haurrentzako aisialdi talde bat sortzea, txikitatik elkar ezagutu eta kultur aniztasuna lantzeko.
4. Auzoan dauden arazo komunak (etxe kaleratzeak, apustu etxeak, sexu erasoak...) identifikatu eta antolakuntzarako espazioak sortzea hauei modu kolektiboan erantzuteko

2. AURREIKUSITAKO JARDUERAK ETA NORK GAUZATUKO DITUEN

1. Gazte eta helduentzako voleyball txapelketa (1H)
2. Kultur ezberdinen janari dastaketa (1H)
3. Kurtsoan zeharreko zineforum-a antolatzea
4. Kultur ezberdinen inguruko argazki erakusketa (2H)
5. Auzoan burutuko diren ekimen kulturalak helarazteko baita egindakoen emaitzak erakusteko auzoko aldizkari digitala sortzea (2H)
6. Hilabete bakoitzaren azken igandean haurrentzako mendi irteerak egitea (3H)
7. Larunbat goizetan haurrentzako ludoteka eskaintza ematea, ekintza ezberdinak burutuz (tailerrak, txangoak, jolas kooperatiboak...) (3H)
8. Auzoko problematikak landuko dituen asanblada bat sortu eta egonkortzea (4H)
9. Eraso sexista bat egotekotan, erantzunerako auzoko protokolo bat sortzea. (4H)
10. Apostu etxeen inguruko hitzaldia egitea (4H)

3. METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, talde lanean oinarritutakoa izango da. Izan ere, komunitate ezberdinen arteko harremanak estutzea helburu izanik, espazio komunitarioak sortuko dituen egoerak planteatuko dira (asanbladak, txapelketak...). Espazioak ahalik eta horizontalenak izan beharko dira eta komunikazioari garrantzia berezia emango zaio, dinamizazio bat egongo den arren. Ekintza bat burutzen den bakoitzean, emaitzak auzora sozializatuko dira, egindakoa ikustarazi eta hurrengo ekintzetara jendea animatzeko. Azkenik, parte hartzaileen artean ebaluazioa egingo da etorkizunean hobetuz joan ahal izateko.

4. ESPERIENZIA

Gure ibilbide profesionalari dagokionez, aipatzekoa da Nafar Gobernuarekin egindako "Herri txikien sarea" proiektua, Ultzama eta Sakanako bailaretan. Honen helburua, herrien arteko harremana estutu eta elkarrekintzarako tresnak sortzea izan zen. Bestetik, Iruñeako udalarekin 3 legealdi daramatzagu jada lanean. Auzo unitate ezberdinekin egin dugu lan (Errotxapea, Sanduzelai, Donibane...) auzo proiektu komunitarioak antolatzen.

5. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

JARDUERA	EBALUAZIO IRIZPIRIZPIDE
Gazte eta helduentzako voleyball txapelketa	Komunitate ezberdinen herritarrek parte hartu dute.
Kultur ezberdinen janari dastaketa	Herritarrak beste kulturen janariak ezagutu ditu.
Hilabete bateko zineforum-a antolatzea	Herritarrak gai ezberdinen inguruko informazioa jaso du.
Kultur ezberdinen inguruko argazki erakusketa	Auzoko argazkilariak bildu ditu. Kultur ezberdinen ezaugarriak erakutsi ditu.
Auzoan burutuko diren ekimen kulturalak helarazteko baita egindakoen emaitzak erakusteko auzoko aldizkari digitala sortzea	Auzokideak informaturik mantendu dira. Erreferentziako webgunea bihurtu da.
Hilabete bakoitzaren azken igandean haurrentzako mendi irteerak egitea	Aisialdi osasuntsu bat sustatu da.

Larunbat goizetan haurrentzako ludoteka eskaintza ematea, ekintza ezberdinak burutuz (tailerrak, txangoak, jolas kooperatiboak...)	Haurrek elkar errespetatu dute. Laguntasuna landu da.
Auzoko problematikak landuko dituen asanblada bat sortu eta egonkortzea	Auzokideak parte hartze aktiboa izan dute. Konpromezua mantendu dute.
Eraso sexista bat egotekotan, erantzunerako auzoko protokolo bat sortzea.	Herritarrek zabaldutako deialdiei erantzun diete.
Apostu etheen inguruko hitzaldia egitea	Auzoan apostu etheek duten eragina argi azaldu da. Jendea kontzientzia hartu du.

Ebaluazio tresnak

Dinamizatzailearentzako ebaluazio tresna:

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Asko	Primeran
Jendea agertu da					
Partea hartzea aktiboa izan da					
Giro eroso sortu da					
Orokorrean ekintza baloratzen dut:					

Partaideak betetzeko ebaluazioa

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Asko	Primeran
Ekintzak bere helburua bete du					
Espero nuena ikasi / bizi dut					
Gustora egon naiz					
Partaideen artean giro ona sortu da					
Orokorrean ekintza baloratzen dut:					

6. EGUTEGIA

JARDUERA	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Webgunea sortu		X				
Eraso sexisten aurkako protokoloak		X				
Ludotekaren hasiera		X	-	-	-	X
Mendi irteeren hasiera		X	-	-	-	X
Argazki erakusketa			X			
Apostu etxeen inguruko hitzaldia			X			
Voleyball txapelketa					X	
Janari dastaketa					X	
Zineforum-a						X

7. ALDERDI BERRITZAILEAK

Orain arte ezagutu izan ditugun proiektu tradizionaletatik gurea bereizten duetenek bi alderdi dira. Lehenengoa, auzo mailako parte hartzea, izan haur, nerabe edo heldu, izan emakume zein gizon eta edozein kultura eta erlijiokoa izan arren, gure proiektuan lekua daukazu. Azkenean gure helburua auzo mailako harremanak estutzea da, horretarako identitate guztiak kontuan hartu behar ditugu.

Bestetik, gure proiektuaren iraupenetik haratagoko aspirazioak ditugu. Azkenean, proiektu hau auzokideak haien artean antolatzeko tresna bat da, lehen pausuak ematen laguntzen diegu. Baina helburua epe luzera haien artean antolatzen jarraitzea eta auzoak dituen beharra identifikatu eta hauei aurre egiteko kapazitatea eskuratzea da.

Proiektu hau ahalduntze eta autonomia hartzeko espazioa izango dela esan genezake.

8. HERRITARREK PARTE HARTZEKO BITARTEKOAK

Herritarren parte hartzea eta sozializazioa ezin bestekoa da gure proiektuan. Izan ere, harremanak saretzea helburua izanik, haiek gabe proiektu hau ez liteke posiblea izango. Gainera, proiektu honen berezitasuna auzoko edozein pertsona parte hartzeko aukera daukala da, hau da adin guztietarako ekintzak burutuko dira eta hizkuntza ez da arazo bat izango. Horretaz, ez da inongo auzokiderik proiektutik kanpo geratuko

Herritarren parte hartzeari dagokionez, garapen bat emango da proiektuan zehar. Izan ere hasiera batean dinamizatutako ekintzak eta asanbladak izan arren, etorkizunean haiek espazio hauek gestionatzea da helburua. Horretaz haien parte hartze aktibo eta konprometitu ezinbestekoa izango da

9.GENEROA

Generoari dagokionez, ekintza guztietan kontuan hartuko den puntua izango da. Hau da, modu trasbertsanean landua joango da. Horretarako, bi aspektu hartuko ditugu kontuan. Lehenengoa, gidatuak diren ekintza guztien dinamizatzaileei hizkuntza inklusibo eta jarrera ez sexisten inguruko material edo informazioa luzatuko zaie. Bestetik, edozein ekintza prestatzean, emakumeen presentzia bermatzea derrigorrezkoa izango da (kontzertuetan emakume musikariak egotea, hitzaldietan emakume ponenteak egotea, dinamizatzaileen artean ere emakumeak egotea...). Azkenean, erreferentzia paper horietan emakumearen figura agertzea ezinbestekotzat daukagu.

Azkenik, erabiltzaileen artean jarrera sexistak ekiditeko erantzun protokolo bat osatzeaz gain, kontzientziazio lanketa bat egingo da. Modu honetan, edozein parte hartzaile bere kideen artean jarrera desagokirik ikustean, hau identifikatu eta erantzuteko ahalmena izan dezan.

10. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN PLANTEAMENDUA.

Hizkuntzari dagokionez, Txantrea auzoan komunitate euskalduna badagoen arren, sektore oso handi bat erdalduna da. Hala ere, euskararen erabilpena sustatzea garrantzitsua ikusten dugu, pertsona hauek bizitza sozial euskalduna bizitzeko eskubidea baitute. Horregatik minimo batzuk bermatzea ezinbestekotzat daukagu:

- Lehenik eta behin, kartel eta sozializaziorako elementu guztiak elebidunez idatziak joan beharko dira (eta euskara lehenik, hau goraiatzeko). Honakoa adibidez auzoko aldizkari digitalean kontuan hartzekoa da.

- Asanbladetan, euskaldun kopuruaren arabera hitz egingo da hizkuntza batean ala bestean (gehiengoa erdaldunak badira erderaz hitz egingo da. Euskaldun eta erdaldun kopuru antzekoa badaude, modu elebidunean hitz egingo da. Gehiengoa euskaldunak badira, euskaraz hitz egingo da baina ez dakitenei itzulpen lana norbaitek egitea derrigorrezkoa izango da).
- Mendi irteeretan zein ludotekan ere, dinamizatzaileek modu elebidunean hitz egin beharko dute eta euskaraz dakiten umeekin beti euskaraz egingo dute.
- Programazio kulturala, euskaraz zein erderaz izan beharko du, bi hizkuntzetan kulturaz gozatzeko aukera eskaintza bat eginez.

Euskararen presentzia bermatzea honen erabilpenaren normalizaziorako bidean kokatzea da. Argi izan behar dugu euskararen diskriminazio positiboaren alde kokatzen garela eta ez erdalduden aurka. Modu berean, erdaldunak direnen artean euskara sartzeko eta hauenganako kontzientzia bat sortu eta euskara praktikatzeko hastera animatzeko bidea da ere.

3. KASU PRAKTIKOAK

3.1.A PRAKTIKA

1. Proiektu sozialen helburua zein da?

Proiektu sozialek gizartean aurkitu daitezkeen arazo eta gabeziei aurre egitea dute helburu. Era berean, erantzunkizuna, urrakortasuna eta gabeziarekin loturiko proiektuak dira.

2. Forniren ustez, gizarte proiektuaren xedeak zeintzuk dira?

Sei dira Fornik planteatzen dituen gizarte proiektuaren xedeak :

1. Estandar sozialetan oinarrituta, gizartean dauden hutsune jakinak zuzenean betetzera bideratzen direnak, zeinetan baliabideen transferentzia zuzena gertatzen den.
2. Beharizan berezi bat zeharka betetzen laguntzen dutenak
3. Egoera sozialak hobetzearren, produzkio-sistema berriak txertatzen dituztenak.
4. Diru-sarreraren banaketari dagozkionak.
5. Gizartean onartutako eskema sozialetik kanpo aurkitzen diren norbanako edo taldeei erantzuten dizkienak, hala nola, transexualak, errefuxatuak ...
6. Egoera sozialak aldatzeko asmoz, antolaketa ereduak aplikatzen direnak.

3. Zer esan nahi du proiektua sistematizatzea?

Proiektu bat aurrera eramateko orduan, ordena lortzeko sistematizatzea beharrezkoa da. Hau da, proiektuek barnebiltzen duten gertakari, objektu eta ideien multzoak hierarkizatu eta koordinatu behar dira. Modu honetan, informazioa bilaketa eta interpretazioa erraztuko da.

Horrez gain, autokritika beharrezkoa da, akatsetatik ikasi eta kalitatea mantendu edo hobetzeko.

4. “Proiektu soziala” kontzeptuaren esanahiak

“Proiektu sozial” bat izateko alderdi hauek bete behar dira:

1. Landuko dugun arazo sozialaren inguruko hausnarketa sakona gauzatzea.
2. Askotariko premia eta egoera problematikoak daudela ohartzea, arazoa ikuspegi integral batetik behatzeko. Modu honetan arazo jakin bati erantzun jakin bat ematea lortuz.
3. Errealitatean aurkitu daitekeen arazo bat hautatzea. Honek dakarren erantzunkizuna presente edukiz.
4. Proiektuaren diseinua osatua, hausnartua eta egituratua izatea.
5. Teorizaziotik praktikara pasatzea, errealitatea eraldatzeko ahalegina eginez.

5. Plana, programa eta proiektuaren definizioa

Plana termino orokorra da. Oinarrizko ildo politikoa jarraituz, lehentasunak ezarriz helburuak betetzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnek biltzen ditu. Erabaki orokorrekin loturik dago eta administrazio zentralaren ustez, planaren xedea nazio mailako sektore baten garapenerako ibilbidea finkatzea da.

Programari dagokionez ordea, antolaturik eta haien artean koordinaturik dauden zerbitzu, ekintza eta prozesuen multzoa da. Plana, programa ezberdinez osatuta dago. Gehitzekoa da programa batek plana operazionala bihurtzen duela, hau da, denbora tarte jakin baterako helburu zehatzak lortzera bideratutako ekintzak egiteaz arduratzen dela.

Azkenik **proiektuari** dagokionez, problematika zehatz bati aurre egiteko haien artean koordinatuta dauden ekintza eta jarduera sorta da. Ekintza zehatzak dira, zuzenean arazoari aurre egingo diotenak. Besteak beste, eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzea proiektu bat izan daiteke, haurrentzako aisialdi arduratsuen inguruko programan baten barruan.

6. Proiektu bat egoki formulatzeko baldintzak.

Proiektu bat behar bezala diseinatuta eta formulatuta dagoen jakiteko, honako alderdi hauek bete beharko lituzke.

- Lehenik eta behin proiektua gauzatzeko zergatia azaltzeko justifikazioa edota **arrazoiak** izan beharko ditugu.
- **Xedea:** Proiektuaren helburua epe luzera begira jomuga bat zehazteko finkatu beharko dugu.
- **Helburuak:** Proiektua ongi ateraz gero lortu nahi duguna zer den jakitea argi eduki behar dugu.
- **Onuradun zuzenak eta zeharkakoak:** Proiektua nori zuzenduta dagoen zehaztea da, norengan izan nahi dugu eragina.

- **Produktua:** Helburura lortzeko proiektuak sortu behar dituen oinarrizko baldintzak zeintzuk diren zehaztea.
- **Jarduerak:** Produktua sortzeko zein ekintza eraman beharko diren aurrera jakitea.
- **Inputak:** Produktua sortu eta helburua lortzeko beharrezkoak diren baliabideak.
- **Arduradunak eta egitura administratiboa:** Proiektua aurrera eramango dutenak.
- **Operazio modalitateak:** Proiektua nola gauzatuko den.
- **Egutegia:** Helburura lortzeko eta produktua gauzatzeko beharrezkoak diren denbora epeak.
- **Aurretiazko baldintzak:** Proiektua arrakasta izan dezan beharrezkoak diren kanpo baldintzak..

7. Proiektu sozialaren oinarrizko faseak

Proiektu bat programatzeko prozesua tempus garrantzitsu jakin batzuetan oinarritzen da, esku hartze proposamen koherente bat diseinatzea ahalbidetzen dutenak zehazki. Jarraian, 4 fase horiek era laburrean azalduak izango dira:

-Premien diagnosis egiteko fasea: Proiektuaren onuradun izatea nahi dugun subjektuak/kolektiboak dituen beharrak, arazoak eta gabeziak identifikatzea da. Bere egoera ahalik eta hoberen ezagutu ahal izateko.

-Plangintza fasea: Errealitatearen analisisa presente izanda, aurretik identifikatutako premien gaineko hausnarketa egitean datza, gerora, hauei erantzuteko jarduerak ahalik eta modu eraginkorrenean antolatzeke. Planifikazioa prozesu jarraitua eta etengabekoa da. Malgua izan behar da eta berregokitzapenak egiteko irekia izan beharko da. Halaber, plangintzan hartutako erabakiak praktikoak izango dira, gerora esku-hartze pedagogiko batentzako planifikatzen baitira.

- Proiektua gauzatzeko fasea: Fase praktiko honek aurreko faseko plangintza martxan jartzea esan nahi du. Oraingoan proiektuaren garapen, jarraipen eta kontrolari erreparatuko diogu. Honetarako, hainbat alderdi garrantzitsu gogoan mantendu behar ditugu. Horien artean:

1. Gauzatzaile eta onuradunen sentsibilizazioa, proiektuaren inguruan motibatuak mantendu eta interesatuak daudela bermatzeko.
2. Langileen prestakuntza: Proiektua gauzatzeko beharrezko prestakuntza teknikoa dagoela ziurtatzea.
3. Komunikazioa lantzea, harremanak bultzatu, informazio bideak zabaldu arazoak edo gaizki ulertuak azkar konpondu ahal izateko.
4. Proiektuaren arduradunen kohesioa ezinbestekoa da planaren planaren alderdi guztiak modu egokienean gauzatzeko.
5. Jarduera eta ekintzen egutegia osatzea. Denbora ahal den heinean gure alde jokatu dezan, tempusak markatu behar dira, zeregin guztiak koordinatu eta koherentziaz antolatuz.
6. Proiektuaren onuradunen parte hartze aktiboa sustatzea. Azkenean haiei bideratuta dago proiektua eta hau bizirik mantentzea haien motibazioaren arabera da.

7. Proiektua garatzen den bitartean honen jarraipen iraunkorra egitea. Modu honetan proiektu zein prestatzaileen gabezi eta disfuntzioak identifikatu dira. Gerora, proiektua hobetzeko eta prestatzaileen lanbide gaitasunak lantzeko aukera emanez.

-Ebaluazio fasea: Hausnarketa fase honetan, proiektua gauzatu bitartean aurrera eramandako ekintzak balioetsiko dira. Aurretik planifikaturikoa eta gerora proiektuarekin lorturikoaren arteko alderaketa egingo da. Finean, fase honi esker, etorkizunean hobetzeko egindako akats eta lorpenak identifikatuko dira.

1.B PRAKTIKA

1. PROIEKTUEN BIDERAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Helburua: arazo jakin bati aurre egitea • Sistematizatzea • Eraginkortasuna eta kalitatea • Egin beharreko urratsak gauzatzeko • Ondorioak aurreikustea 		
2. PROIEKTU SOZIALEN KONTZEPTUA	<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="vertical-align: top;"> <ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa • Ikuspegi integrala • Arazo errealearen hautaketa • Discinu osatua </td> <td style="vertical-align: top;"> <ul style="list-style-type: none"> • Praktikara pasatzea • Malgua eta irekia • Originala • Hartzailearen interesak kontuan hartu </td> </tr> </table>	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa • Ikuspegi integrala • Arazo errealearen hautaketa • Discinu osatua 	<ul style="list-style-type: none"> • Praktikara pasatzea • Malgua eta irekia • Originala • Hartzailearen interesak kontuan hartu
<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa • Ikuspegi integrala • Arazo errealearen hautaketa • Discinu osatua 	<ul style="list-style-type: none"> • Praktikara pasatzea • Malgua eta irekia • Originala • Hartzailearen interesak kontuan hartu 		
3. PLANAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK	<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="vertical-align: top;"> <p>PLANA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orokorra • Ildo politikoak jarraitu • Administrazio zentrala <p>PROGRAMA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera antolatua • Elkarren artean koordinatua </td> <td style="vertical-align: top;"> <p>PROIEKTUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zehaztasun -maila handia • Jarduera zehatzen multzoa • Elkarren artean lotuta eta koordinatuta • Arazoei zuzenean erantzun • Jarduera eta zereginak </td> </tr> </table>	<p>PLANA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orokorra • Ildo politikoak jarraitu • Administrazio zentrala <p>PROGRAMA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera antolatua • Elkarren artean koordinatua 	<p>PROIEKTUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zehaztasun -maila handia • Jarduera zehatzen multzoa • Elkarren artean lotuta eta koordinatuta • Arazoei zuzenean erantzun • Jarduera eta zereginak
<p>PLANA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orokorra • Ildo politikoak jarraitu • Administrazio zentrala <p>PROGRAMA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera antolatua • Elkarren artean koordinatua 	<p>PROIEKTUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zehaztasun -maila handia • Jarduera zehatzen multzoa • Elkarren artean lotuta eta koordinatuta • Arazoei zuzenean erantzun • Jarduera eta zereginak 		
4. PROIEKTUA EGOKI FORMULATZEKO BALDINTZAK	<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="vertical-align: top;"> <ol style="list-style-type: none"> 1. Arrazoiak: justifikazioa 2. Xedea: Zertarako 3. Helburua. 4. Nori zuzenduta dagoen. 5. Sortu beharreko produktua 6. Ekintzak. </td> <td style="vertical-align: top;"> <ol style="list-style-type: none"> 6. Baliabideak 7. Arduradun, egitura administratiboa 8. Operazio modalitateak 9. Egutegia 10. Aurretiazko baldintzak </td> </tr> </table>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arrazoiak: justifikazioa 2. Xedea: Zertarako 3. Helburua. 4. Nori zuzenduta dagoen. 5. Sortu beharreko produktua 6. Ekintzak. 	<ol style="list-style-type: none"> 6. Baliabideak 7. Arduradun, egitura administratiboa 8. Operazio modalitateak 9. Egutegia 10. Aurretiazko baldintzak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Arrazoiak: justifikazioa 2. Xedea: Zertarako 3. Helburua. 4. Nori zuzenduta dagoen. 5. Sortu beharreko produktua 6. Ekintzak. 	<ol style="list-style-type: none"> 6. Baliabideak 7. Arduradun, egitura administratiboa 8. Operazio modalitateak 9. Egutegia 10. Aurretiazko baldintzak 		
5. PROIEKTU SOZIALEN OINARRIZKO FASEAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. Premien diagnosiaren fasea 2. Plangintza fasea. 3. Proiektua gauzatzeko fasea. 4. Ebaluazio fasea 		

3.2.A PRAKTIKA

1. Zergatik da garrantzitsua egoeraren diagnostia?

Errealitatearen diagnostia gauzatzea garrantzitsua da arazo nagusiak identifikatzea ahalbidetzen duelako. Era berean, sakoneko arazoak azaleratzen ditu, modu honetan soluzioak eskeiniz arazoa arintasunez konpontzeko.

2. Diagnostia bitartez lortzen diren emaitzak

Diagnostiaren bitartez, proiektua gauzatuko den errealitatearen azterketa ahalik eta sakonena egitean datza, gerora arazoa eta bere zergatiak ahalik eta hoberen ulertu ahal izateko. Honen bitartez, 4 dira ezinbestean lortu beharreko emaitzak:

- Premien koadro bat finkatzea, hau da, beharren deskripzio bat osatzea
- Antzemandako egoera problematikoari aurre egiteko beharrezkoak izango diren eta eskuragai ditugun baliabideen zerrenda edo inbentarioa egitea
- Identifikatutako premiak eta eskuragai ditugun baliabideek baldintzaturik, arazoari aurre egiteko ekintzen alternatiba posibleak definitzea.
- Alternatiba egokiena aukeratu, proiektua formulatzerakoan oinarri izango duguna.

3. Diagnosti soziokulturala egiteko atalak

Diagnosti soziokulturala egiteko, ikerketan batutako datuetan oinarritzen da eta lau azterketa maila uztartzen dira:

- **Egoeraren deskribapena**, Aztertu beharreko egoeraren azterketa sikroniko eta diakronikoa egitea. Honek atzera begiratu eta etorkizunean proiektatzea esan nahi du.
- **Joerak**. Talde zehatz baten errealitatearen bilakaera aldatzeko esku hartzea izan ezik, etorkizuneko joeren iragarpena egitea da.
- **Iritzia/ egoeraren ebaluazioa**. Premia motak ezartzea da, hau da, errealitatearen ulertze analitikoa. Gerora, premia horiek hierarkizatu behar dira irizpide ideologiko, politiko eta tekniko jakin batzuen arabera.
- Egoeran eragin eta proiektuaren bideragarritasuna baldintza dezaketen **faktore garrantzitsuak** antzematea. Arazoak eta premiak zehazteaz gain, hauei aurre egiteko dauden baliabideak ere kontuan hartu behar dira

4. Diagnostiaren zailtasun handiena zein da?

Diagnostiaren zailtasun nagusia honen ulerkera da. Errealitatea eta aurrera eraman nahi dugun esku hartze soziala egia ezagutzea zehazki. Hortaz diagnosti zuzen bat egiteko kontraesanak egiaztatu eta testuinguru, praktika, gure helburu eta gizarte-proiektuaren arteko kohesio maila ziurtatu beharko dugu. Diagnostia beti errealismotik abiatuta aberasgarria izan beharko du.

5. Foru arabera, zer dira estandarrak?

Estandarrak, minimoak bezala definitu ahalko genituzke. Arazo sozial baten aurrean, zein baldintzen aurrean aurkitzen garen ahalik eta modu objektiboenean baloratu ahal izateko. Adibide moduan, bizi duin baterako minimoak jatekoa, etxebizitza eta ongizate sozial, fisikoa

eta psikologikoa bada. Minimo hauek ez dituen pertsonak arazo sozial larria daukala esan genezake. Estadarren azpitik aurkitzen delako.

6. Lehentasanak finkatzeko estrategiak

Zaila da askotan primen artean lehentasanak zehaztea, azkartasun gehien edo larriena zein den baloratzea. Horretarako lehentasanak finkatzeko estrategia ezberdinak daude. Modu honetan ahalik eta objektiboen emango zaie lehentasuna eta ez aztertzailearen ikuspegiaren arabera:

- Garrantziaren arabera, premietan oinarritutako helburuak ordenatzea.
- Egungo egoeraren eta helburuen arteko sumatutako aldearen garrantzia.
- Sistema mistoa: Proiektuaren helburuei emandako garrantzia eta helburuen eta egungo egoeraren arteko aldearen maila kontuan hartuz.

7. Arazoak definitzeko estrategiak

Arazoa mugatzeko estrategia ezberdinen artean behaketa daugaku, giza taldean dauden arazoak antzeman eta identifikatzeko. Horretarako:

- Arazoak nolakoak diren azaldu behar da, deskubritzea
- Zergatik ikertu behar diren justifikatu beharko da
- Ikerketarekin zer helburu lortu nahi diren zehaztu beharko da.

Hala ere, askotan arazo handiegiak formulatu izan dira egoera problematikoa azkarren konpondu nahian. Hortaz premia bat identifikatu bezain laster galdera ahalik eta zehatzenak egin beharko dizkiogu gure buruari:

- Nola egin aurre premia horri?
- Zer egin egoera hori aldatzeko?
- Gure egoeratik, nola lagundu arazoa konpontzen?
- Zer bitarteko, jarduera, baliabide erabiliko ditugu?
- Zer jende beharko da proiektu honetan?
- Zenbateko denbora beharko dugu?
- Zenbat denbora dugu?

8. Zer da proiektua kokatzea leku fisikoan? Zer esan nahi du?

Proiektua kokatzea, honakoa gauzatuko den lekua zehaztea esan nahi du: Autonomia erkidego mailan, eskualdean, hirian, auzoan... Hau da ze mailatan.

Honetarako, zehaztutako inguruneari buruzko informazio garrantzitsuena bildu beharko dugu: datu deskriptiboak, grafikoak, mapak. Azterketa soziologiko bat egin beharko dugu azken finean, proiektuarentzat lagungarria izango dena.

9. Premien diagnosis egiteko erreferenteak

Bi erreferente ezberdin ditugu: pertsonaren garapen integrala eta herritaren bizitzaren kalitatea

Pertsonaren garapen integrala:

Pertsona baten garapen integrala, hazkundera eta perfektzionamenduan funtsezkoak diren arloak barnebiltzen ditu. Hortaz, bazterketa arriskuan dauden pertsonen formaziorako prestakuntza-premiak honako kategoriatan laburtu daitezke:

- Arlo kognitiboa: Giza garunaren eta kognizioaren garapena. Informazioaren prozesatzea, ikasten ikastearekin... loturikoa.
- Osasun eta ekologiaren arloa: Garapen fisiko, osasuna eta ekologiarekin loturiko konpetentziak (koordinazioa, oreka, orientazioa...)
- Arlo afektiboa: autoestimua, sentimendu, jarrerarekin... loturikoak. Sentsazio eta ongizate emozionala.
- Komunikazioaren arloa: Adierazpenaren gaitasuna sustatzea. Ahozko / ez ahozko hizkuntzak, idazkera, adierazpen plastikoa, entzutea.
- Harremanen eta gizarteratzearen arloa: besteeiko harremanekin, talde baten parte izatearekin, errespetua, elkarlana, laguntzarekin... loturiko konpetentziak.
- Ekintzaitzaren arloa: berrikuntza, sormena, ziurgabetasun egoerei aurre egitearekin... loturiko konpetentziak dira.

Laburbilduz, konpetentzia generiko hauen sailkapena bi kontzeptutan laburtu ditzazkegu: nortasunaren garapena (kognitibo eta afektiboa) eta gizarteratzea / laneratzea (beste lau arloak).

Herritarren bizitza kalitatea:

Administrazioaren erronka nagusietakoa da herritarren bizi kalitatea lortzea. Kontzeptu honek interpretazio asko izan ditzake elementu objektibo eta subjektibo askoz osatuta dagoelako. Kontzeptua definitzeko alderdi pertsonala, familiara eta komunitateko politika sozial eta erakundeen eginkizuna kontuan hartu behar dira. Kontzeptua eta bere osagaien arabera, administrazioek hezkuntza eta gizarte arloko politika zehatzak garatuko dituzte.

Schalock eta Verdugo (2006) autorek, alderdi hauen arabera definitu zuten bizi kalitatearen esanahia:

- Ongizate emozionala: autokontzeptua, autoestimua...
- Ongizate fisikoa: osasun fisikoa, gaixotasun eza...
- Ongizate materiala: finantza egoera, enplegua...
- Autodeterminazioa: autonomia, autokontrola
- Gizarteratzea: komunitatearen parte izan, parte hartu...
- Herritarren eskubideak: lege arlokoak, giza eskubideak...

Eremu hauek ikuspegi ekonomiko eta sistemikoaren hiru alderdirekin gurutzatzen dira: Mikrosistema (esku-hartzea, hobekuntza pertsonala), mesosistema (auzoa, ingurunea), makrosistema (politika sozialak).

10. Bizitza duinaren atalak

Bizitza duinaren atalak hauek dira: Osasun fisikoaren adierazleak, osasun emozionalaren adierazleak, harreman pertsonalen adierazleak, ongizate ekonomikoa eta materialaren adierazlea, gizarteratze prozesuen adierazleak, erabakiak hartzeko adierazleak, herritarren eskubideen adierazleak, garapen pertsonalen adierazleak eta garapen orekatua-iraunkorraren adierazleak.

3.2. B PRAKTIKA

DAFO: NERABEAK	SANTURTZIKO CIP-a
ALDERDI AHULAK	ALDERDI INDARTSUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dira kapazak hezkuntza sistema tradizionalaren erritmoa jarraitzeko. - Ez dute teoriarik oinarriutako metodologiak jasaten. - Gizartearen gutxietea jasotzen dute. - Lan ohituren faltak - Gizarteak bultzatutako ohitura indibidualistak. - Sozietate egokiak diren ohitura falta (educados). - Autoestima baxua. - Ulertua ez izatearen sententzia. - Ezertarako balio ez dutela pentsatzea. - Oso urduiak izatea. - Haien emozioen kontrola ez izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Interesetako gaietan esfortzu handia egin. - Lan praktikoetan abileak. - Lan munduan sartzeko motibazioa. - Lagunekiko leialtasuna. - Izaera jatorra eta irekia. - Energia asko izatea.
MEHATXUAK	AUKERAK
<p style="text-align: center;">Orain:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biolentzia, gatazka. - Autonomia falta. Dependentsia. - Arazoak ahazteko bide okerrak aukeratzea - Eskolan bazterketa. <p style="text-align: center;">Etorkizunean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasketa maila gutxi. Curriculum eskasa. - Lana aurkitzeko arazoak. - Lan prekarioetara kondenatuta egotea. - Bizitza duinerako zailtasunak - Gizarteagatik baztertuak izatea. 	<p style="text-align: center;">Orain:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lagunak azkar egiteko gaitasunak. - Harremanetarako erraztasuna - Giro politikak sortzeko aukera. - Gustura badaude. Konfidantzako harremanak sortzeko aukera. - Emantzipazio ekonomiko gozitiarra <p style="text-align: center;">Etorkizunean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ondo joatekotan, lanpostu fijoak lortzea. - Lagunak etorkizunean mantentzeko aukera. - Publikora begira lan egiteko kapazitatea. - Gustuko dutenarekiko konprometuz eta leialtasuna.

Ondorioa / aholkua: Pertsonaren garapen integralerako taula hartuta, gazte hauen egoera ikusita **afektuzko eta arlo emozionala** landu beharko lukeela uste dut. Azkenean, autoestima baxua eta pertsona hauek gutxietsiak sentitzeak jarrera desagokiak eta ekintza arazotsuak izatera bultzatzen zaie. Behar dutena, motibazioa, produktiboak sentitzea eta haiekiko konfidantza da.

3.3.A PRAKTIKA

1. Zer lortu nahi da plangintzaren bidez?

Planifikatzea aurretik aurreikusitako ekintza eta jardueren arrazionaltasun eta antolaketa gauzatu nahi da. Honen bidez hainbat puntu lortu nahi dira:

- Lortu beharreko emaitzak eta honetarako pertsonak eta materialek bete beharreko eginkizunak zehaztea.
- Lanketaren arauak eta orientabideak lantzea.
- Parte hartzen duen pertsona orori eginkizun bat definitzea.
- Egoera posibleak aurreikusi eta zuzenketarako estrategiak prestatzea.
- Prozesuaren jarraipen bat egiteko eta lorpen mailari buruzko informazioa momentu oro eskuratzeko kontrol sistema baten ezarpena.

2. Plangintzaren oinarritzko elementuak:

Plangintzaren helburua, proiektu koordinatu bat lortzeko prozesuen zein elementuen sistematizazioa gauzatzea da; lehenagotik diagnostiko batetik ateratako premiei erantzuteko. Beraz, plangintzaren gauzapenerako honako hauek dira oinarritzko elementuak:

- Proiektuaren justifikazioa (irakastearen zergatia)
- Edukia (landuko dena)
- Helburu didaktikoak (Zertarako irakatsi)
- Ikasteko estrategiak (nola irakatsi)
- Erabilitako baliabideak (Zertaz baliatuko nahi irakasteko)
- Ebaluazioa (Aurreko puntu guztiak nola baloratuko diren)

3. Proiektua justifikatzeko atalak:

Proiektua justifikatzean funtsezkoak diren arrazoi eta argudioak adierazi beharko ditugu. Horretarako aurretik egindako diagnostikotik ateratako datu eta informazio esanguratsuenak hartzen ahal ditugu abiapuntutzat. Justifikazioa lau atal ezberdinetan egituratuko da:

- **Proiektuaren deskribapen orokorra:** Sarrera gisa, jardungo garen egoera/arazoaren azalpen laburra.
- **Proiektuaren kokapena:** Proiektua kokatuta dagoen espazioaren azterketa soziologikoa. (Non).
- **Proiektuaren onuradunak:** Proiektua “nori” bideratuta dagoen adieraziko da. Izan proiekturen gauzatzaile edo hartzaileak (hezitzaileak, hezigaiak, usuarioak...)
- **Justifikazioa:** egoera bere orokortasunean, arazoak, premiak, beharrak... kontuan izanik, esku-hartze honen “zergatiaren” arrazoiketa.

4. Gaitasun motak zehaztu:

Garapen pertsonal orekatu bat lortzeko, hau da, garapen integral bat lortzeko, hurrengo bost gaitasun hauek dira landu beharrekoak:

- **Gaitasun kognitiboak:** Alderdi kognitiboa lantzean datza. (Ulertzea, arrazoitzea...).
- **Gaitasun psikomotoreak:** Garapen fisikoa eta espazio-denboraren orientazioaren indarketa. (Koordinazioa, oreka, manipulazioa...).
- **Gaitasun afektiboak:** Pertsonaren eremu emozionala lantzea. (Autoestimua, tolerantzia errespetua).
- **Komunikazio gaitasunak:** Pertsonen arteko harreman eta komunikazioari loturiko alderdiak indartzea. (idatzi, ahozko adierazpena, gorputz adierazpena).
- **Gizarteratzeko gaitasunak:** Pertsona bere ohiko espazioan uztartzeko dituen gaitasunak. (harremanak zaintzea, parte hartzea, puntu komunak).

5. Eduki motak eta bakoitzeko adibide bat jarri:

Gaur egun eduki mota hiru mota ezberdinetan sailkatzen dira:

- **Eduki kontzeptuala:** Hezkuntza eremuan landuko diren datu, data, teoria... eta bestelako kontzeptuak dira. Hauek era memoristikoa barneratu beharko dira. Kontuan izan behar da beti aurretiazko jakintzarekin harremanduko direla. Hortaz azalpenak eman beharko dira gaizki ulertzeak ekiditeko.
Adibidea: Nafarroan egondako errege-erreginak ikastea-
- **Prozedurazko edukia:** Trebetasun bat menderatzeko aurretik egin beharreko ekintza bideratu eta ordenatuak. Edukiak ulertu eta prozesua errepikatuz joan beharko da helburua lortu arte.
Adibidea: Espaniako komunitateak eta hiriburuak ikasi eta mapan kokatzea.
- **Jarrerazko edukia:** Jarrerak, balioak, ohiturak indartzeko helburua dutenak.
Adibidea: Klase ordua bukatzea, klasea txukun uztea. Ordena, antolakuntza, norberaren ardura eta ardura kolektiboa lantzeko.

6. Ikasteko estrategiak zehaztu (hamar):

Estrategiak aurreikusitako helburu didaktikoak betetzeko proiektuan landu beharreko jarduera kordinatuen multzeak dira. Estrategia hauek bi multzo nagusitan banatzen dira:

Azalpenezko estrategiak: Harrera bidezko ikaskuntza da. Ikaslea informazio hartzaile pasiboa da eta hezitzailea, tresna teknologikoak eta bestelakoen bitartez jasotzen du informazioa.

Adibidez: Hezitzailearen azalpenak, ikasleek lana azaltzea, bideoa ikustea, gaia aditu batek azaltzea...

Ikerketako estrategiak: ikaslearen ekimenez garatzen da ikaskuntza prozesua eta irakaslea prozesu horren orientatzaile eta bidelaguna da. Ikaslea bere kabuz informazioa bilatu eta hezitzaileak gidatzen dio. Ikaslea sujeto aktiboa da. Aurkikuntza bidezko ikaskuntza dira estrategia hauek.

Adibidez: Asanbladak, espezialisten arteko eztabaida, kasuak aztertzea, grafiko edo horma-irudiak sortzea, rol-playing-a, lan monografikoak...

7. Baliabide motak:

Baliabideek planifikatutakoa gauzatu ahal izango dugunaren bermea ematea lortu behar dute. Hezkuntzako plangintzetan hiru mota ezberdin bereiztuko ditugu:

- **Giza baliabideak:** pertsonak, espezialistak, profesionalak, laguntzaileak...
- **Baliabide materialak:** askotarikoak dira. Instalazioak, tresnak, ekipo teknologikoak, inprimatutakoak (liburuxkak), material suntsikorra (papera)... Hauek, ikasleak ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartzea ahalbidetu behar dute: Ikasleak ikertu, behatu, ondorioak azaldu, konparatu... eta bestelako ekintzak gauzatzeko aukera ematea.
- **Baliabide funtzionalak:** Ahalik eta zehatzen planifikatu behar diren hiru alderdi dira: Proiektua gauzatzeko beharrezkoa den denbora (jarduerak modu orekatuan egin), espazio aproposa (lan aktiboa eta lankidetzarako diseinatutakoa) eta finantzaketa ekonomikoa (aurrekontuaren bidez planifikatua).

8. Zer da ebaluazioa?

Ebaluazioa proiektuaren bitartez lortutako emaitzak balioestea da. Aurretik finkaturik helburuak, lortutakoekin konparatu beharra dago. Proiektuaren garapenaren jarraipen bat eginda, indargune eta ahulguneak identifikatzean datza. Informazio baliogarri horren bitartez etorkizuneko prozesuak hobetzeko eta akatsetatik ikasteko

3.3. B PRAKTIKA: Azaroak 25.

1. Eraso matxisten aurkako ekintza zehatzak:

Eraso matxisten aurka egiten ahal diren ekintzen artean, bi talde ezberdin bereizi ditugu. Batetik prebentzioa, eta bestetik erasoari erantzuna.

Prebentzioa ezinbestekoa ikusten dugu, honakoa ongi gauzatu balitz erasoak ekidin ahalko zirelako. Ahala ere, gaur egun puntu horretara iristea oso zaila da.

Lehenik eta behin, hezkuntzari dagokionez, material didaktiko parekidea erabiltzea ezinbestekoa ikusten dugu. Askotan onartu ez arren testu liburuak ezkutuko mezu sexistak eramaten dituztelako gainean. Era berean, klaseetan pedagogia feminista gauzatzea ikusten dugu: elkartasunean eta errespetuan oinarritzen baita.

Bestetik, emakumeekin lanketa zehatzak egiten diren bezala, gizonezkoekin ere lanketa espezifikoak modu derrigortuan txikitatik egitea ikusten dugu. Modu honetan maskulinitate hegemonikoaren deseraikuntza eta berri baten sorrera ahalbidetzeko lehen urratsak emango zirelarik. Baita haien pribilegio eta rolletaz kontzientzia hartzeko balioko luke.

Azkenik, espazioaren kudeaketa ere eraldatzea beharrezkoa ikusten dugu. Horren adibide zehatza da komunak generoarengatik bananduak izan ordez mixtoak izatea.

Erantzun markoari dagokionez, lehenik eta behin autodefentsa feminista lantzea ezinbestekoa ikusten dugu. Eraso bat pairatzekotan nola erreakzionatu jakiteko. Era berean, erasoren bat gertatzekotan ahalik eta azkarren erantzun masiboa izan behar da. Batetik, eraso ikusten bada, erasotua lagunduz eta erasotzailea identifikatuz. Bestetik, mobilizazioak deituz eta erantzun kolektibo bat emanez.

Era berean, erasotzailea kartzelarekin zigortzea nahikoa ez dela ikusten dugu. Berarekin lanketa ere egin beharko zen, Izan ere, berak gizarteak eskeini dion dominatzaile rolla hartu du eta hau deseraikitzea ezinbestekoa da jarrera eta izaera horiekin amaitzeko.

Azkenik, egunerokotasunean bizitzen ditugun mikromatxismoen aurrean erantzun bat ematen hasi beharko ginateke. Izan ere komentario eta jarrera matxista asko oso ohikoak dira eta askotan eztabaidan ez sartzearen ez ditugu salatzen. Baina hauek desnormalizatzeko momentua iritsi dela uste dugu, konfrontazio minimo bat egon dadin hauek hor daudela ikustarazteko. Adb. busean eserita hankak erabat zabalik eramaten dituzten gizonaekoei ixteko eskatu edo komentarioak salatu.

2. Arazo honen aurkako estrategiak:

Arazoari aurre egiteko estrategia batean pentsatzea ez da batere erraza. Gure taldean egindako analisiaren arabera, gaur egun gizarte individualizaziorako joera duen heinean, komuniataren falta bat dago. Gure arteko harremanak oso ahulak dira. Horregatik komunitatea indartzea beharrezkoa ikusten dugu. Modu honetan, elkar ezagutuz, elkar lagundu eta zainduko gara, balore kolektibo batzuk sortuko dira errespetuan oinarritua eta gure elkarren arteko babesa egongo da. Balore feminista batzuen gainean eraikitako komunitatean, izan daiteke eraso horiek ekiditeko aukerak egotea.

Era berean, feminismoa eta kapitalismoa idei antagonikoak direla uste dugu. Izan ere, kapitalismoa sistema zapaltzailea den heinean ez du feminismoarentzako kabidarik. Honek ez du esan nahi gizarte kapitalistaren eredu desagertzearekin batera eraso matxistak modu sistematikoan desagertuko direnik. Ez, lanketa egiten jarraitu beharko liteke gizarte eredu hori desagertu arren ideologia kapitalista biziraungo zuelako, eta hau da desegin behar duguna.

Horretarako, aldaketa estruktural handiak egin beharko litezke, gaur egun dagoen guztia kolokan jarri eta gizarte eta bizi eredu berri baten inguruan hausnartzen hasi beharko ginateke. Klaserik gabeko eta bestelako zapalkuntzarik gabeko gizarte bat izan beharko genuke jomuga.

3.4.A PRAKTIKA

1. Taldeko lanaren helburuak:

Taldean lan egitearen helburu hezitzaileei dagokionez, hauek aipatu ahalko genituzke:

- Ikaslearen behar sozialari erantzutea.
- Lankidetzaren eta elkar ezagutza: elkarlana bultzatu, ikasleen arteko eragina sustatu

- Deszentrazioa eragin: Norberaren interesetatik, interes kolektiboetara salto ematera. Gatazka eman daiteke iritzi kontrajarriak agertzeagatik baina modu honetan arazoa konpontzeko ikasleek komunikazioaren beharra eta informazio berria jasotzera behartuak egonen dira.
- Taldearekiko erantzunkizuna: elkarlaguntza eta elkardenpendentziaz ohartzea.
- Zeharka ahozko hizkuntza lantzen da.

2. Taldearen helburuak mugatu behar dira, zergatik?

Taldean lan egitean, ikuspegi indibidualetik kolektibora pasa behar da. Talde izaera sortu behar. Talde helburuak finkatu behar dira: asmo komunak, motibazioak, arauak... Hauek guztion artean onartuak izan behar dira, denek ados egon eta irakurketa bakarra egon dadin talde moduan. Beti ere malgua izan behar du, ikasle bakoitza bere gaitasunekin taldearen beharrei erantzun ahal izateko.

Hortaz, helburuak mugatuak izan behar dute, zehaztasuna mantetzeko eta dispersioa ekiditeko.

3. Talde txiki batek zenbat ikasle ditu?

Talde txiki bat 3-6 ikasleen arteko taldeak dira. Irakaslea ez da taldearen parte, baizik eta kanpo laguntza bezala lan egiten du. Eskola barruan zein kanpoan lan egiteko kopuru egokia da eta ezagunpen, gaitasun zein jarrerak lantzeko zenbaki egokia da.

4. Zenbat kideko talde txikiak egingo zenituzke lanerako? Zergatik?

Zenbaki zehatz bat aukeratu behar du, 4 ikasleko taldea egingo nituzke lanerako. Lehenik eta behin, bikoitiak izanda, ezadostasunaren aurrean "berdinketa" batean gera daitekeelako arazoa eta ez 2 baten aurka hiruko taldeetan gertatzen ahal den bezala.

Bestetik, klasetik kanpo geratzeko kopuru egokia dela uste dudalako, eta hauen artean ordutegi aldetik kointziditzeko erraztasunak daudela uste dut. Honetarako 5 izatea jada gehiegizkoa ikusten dut.

Lana banatzeko orduan, 4ren artean lana banatzea lan karga gehiegi suposatzen ez duela uste dut. Era berean, bikoteetan lana egin daiteke eta denboran zehar bikote horiek aldatuz joan daitezke.

Azkenik, 4 kopuru egokia iruditzen zait harreman pertsonalak finkatzeko eta ikasleak haien artean benetan ezagutzera iristeko. Izan ere, talde handiagoetan, ez zara taldekide guztiekin harreman estu bat finkatzera iristen.

5. Zer da indibidualizazio fasea?

Hasieran, talde batean integratzeko orduan pertsonak gizabanako bezala baieztatzeko joera dute. Fase honetan diren bezalakoak onartuak direla sentitu arte irauten du. Taldeko lan helburuak mantsozten dituen prozesua dirudien arren, benetan integratuak izatean hasiko dira zintzoki lanean. Elkarren artean ezagutu eta laguntzea, bakoitzaren berezitasun eta gaitasunak ezagutzea eta elkarrekiko zaintza bermatzea ezinbestekoa da talde kohesioa ziurtatzeko.

6. Eta identifikazio fasea?

Bereziki talde heterogeneotan gertatzen da. Taldean norbait direla sentitzean, ikaskide batzuen artean azpitaldeak egiteko joera dago. Hauek gutxiengoaren sentimendua edota errespetatuak ez direla sentitzen badute, hezitzailearen esku-hartzea ezinbestekoa da. Honek, pertsona hauenganako interesa erakutsi eta haien parte hartzea bermatzeko bideak ireki beharko ditu. Talde handian integratzen laguntzeko

7. Hezitzailearen jarrera lan taldeen aurrean

Hezitzaileak lan taldeen aurrean jarrera batzuk onartu eta aurrera eramane beharko ditu:

- Ikasleak pertsonak bezala errespetatu eta onartu
- Ikasleak iritziak, ideiak, bizipen eta sentimenduak azaleratzera animatu
- Gelan zein lantaldeetan. Konfidantza eta parte hartze giroa sustatu behar du, guztiek zeresanik dutela sentiarazketko
- Ikasleei lan egiteko metodo eta teknikak irakatsi helburuaren arabera.
- Norbanakoaren desberdintasunak onartzen dituela adierazi
- Ikasleei besteen iritzia errespetatzera bultzatu eta iritzi kritikoa eraikitzen bideratu.

8. Ikaskuntza jardueraren ezaugarri batzuk aipatu (6)

Ikaskuntza jarduerak aurrera eramane indartu beharreko gaitasunak asko dira. Hona hemen aipagarriak iruditzen zaizkidan horietako sei gaitasun:

- Ikasleak erabakia hartzea eta horien gauzaketa aktibo eta dinamikoa izatea.
- Gizarte gertakariak ikastea, konpromisoa bilatu. (Eskolaz kanpo gertatzen denaren berri izan.)
- Normalki onartu egin ohi diren ideiak aztertzea. (gizarteak inposaturikoa zalantzan jartzea).
- Ikaslearen ahalegina aintzat hartu eta ebaluatzea. (autoestima).
- Ikasleen interes ezberdinak errespetatzea.
- Inguruko errealitatearekin elkar eragitea.

3.4.B PRAKTIKA: Proyecto Hombre

1. Erabiltzaileen diagnostikoa:

Proiektura orokorrean agertzen diren erabiltzaileen diagnostikoari dagokionez, gehienak kalte fisiko eta psikologiko handiekin (pertsonalitate trastornoa) iristen dira, drogodependentziak eragindakoak. Era berean bizitza desestrukturatuak izaten dituzte: lanbiderik gabe, delinkuentzian eroriak, familiarekin harremanik ez edukitzea... Azken honek bakardade sentimendua eragiten die eta normalean bestelako harremanetatik isolatzen dira. Oso desmotibatuak iristen dira, autoestimua oso baxua dutelarik eta ez dute bizitzarekiko esperantzarik.

2. Proyecto Hombrearen balorak:

Proiektuaren baloreen barruan, ongizate fisiko eta psikologikoa berreskuratzeaz gain, aldaketa sakonago bat gauzatzea dute helburu: Izaeran, bizimoduan. Hauek aldatu gabe arazoa konponduko ez delako. Era berean, pertsona hauen autoestima eta duintasuna landu egiten dute. Horretarako haienganako konfidantza jartzen dute eta birgizarteratzeko kapazak direla erakusten diete. Horretarako bizikidetzaren garrantzia lantzen dute, baita familiarekiko errespetua eta zaintza ere. Honetarako ohitura osasuntsuen hartzea lantzen dute, bizimodu berri bat eratzeko. Azkenean pertsonaren hobekuntza integrala sustatzen dute.

3. Esku hartzea deskribatu.

Esku-hartzerako ekipo multidisziplinarrak elkartzen dira: langile sozialak, hezitzaileak, psikologoak, medikuak, herizainak, terapeutak... Hauek esku-hartzearen alderdi bakoitzaz okupatzen dira baina beti ere ikuspegi integral batetik. Esku hartzea prozesu bat izaten da, zeinetan arazo orokorretatik sakonenetara iristen diren. Bereziki haien bizitza egituratzen laguntzen diete, drogak uzteak sortzen dien hutsune hori ekintzengatik ordezkatzeko erakusten diete. Era berean, banakako zein taldekako terapiak egiten dituzte, arazo sakonagoak lantzeko eta elkartasunean oinarritzeko. Profesionalak bidelagunak dira, eta usuarioak programan egotea erabat boluntarioa da beraz benetan arazotik ateratzeko gogoak ezinbestekoak zaie hortik ateratzeko

4. Taldearen garrantzia zertarako?

Taldean lan egitea, alde batetik ezin bestekoa da esperientziak elkarbanatuz, elkartasunean oinarrituz, antzeko egoerak bizi dituzten pertsonen arteko babesa eta indarra eskainiz aurrera egiteko. Era berean bakarrik ez daudela ikusteko, eta modu honetan gogo gehiagoz elkarri lagunduz doazte aurrean.

Era beran, proiektua bitartean elkarrekin bizitzeak, bizikidetzarako prestatu egiten ditu, elkarrekiko errespetua sustatuz, ohitura osasuntsuak hartuz eta berriz ere pertsonetik harreman osasuntsuak finkatzean laguntzen die.

5. Pautak, nola landu:

Programa lehenik eta behin efikaza izan dadin, usuario drogodependentziatik atera nahi behar du. Horretarako eskatzen zaien oinarritzeko baldintza lagunduak izaten uztea da. Normalean programak 9 hilabete ingurukoa izaten dira, beraz ere konstanteak izatea eskatzen zaie. Modu progresiboan egiten da lanketa eta honetan disziplina eta ohiturak hartzea eskatzen zaie. Era berean, berriz ere ardurak hartzen lagundu egiten zaie: familiarekiko zaintza, lagunena, lan bat mantentzea... Baina bereziki haien bizimodua aldatzeko konpromezua hartu behar dute.

6. Autoestima nola landu:

Proiektura normalean oso autoestima baxuarekin iristen dira. Oso desmotibatuak egoten dira hasieran eta bizitzarekiko esperantzarik gabe. Autoestima berreskuratzeako, ongizate fisiko mentala hobetuz joan ahala hau ere gora dioa. Era berean, familiarekin harremana

berreskuratzea asko laguntzen die. Drogodependentzian daudelarik oso izaera bakarti eta berekoia izaten dute, beraz haien ingurukoengatik arduratzen hasteak ere ongi sentiarazten die. Denborarekin, haien pertsonalitatea berreskuratzen dute.

Azkenean, denboraren bitartez joaten dira autoestima berreskuratzen, benetan haien bizimodua hobetu eta eraldatu dezaketela ohartzen joaten direnean motibazioarekin batera gora egiten dute.

3.5.A PRAKTIKA

1.Ebaluazioa zer den definitu

Ebaluazioa informazioa lortzea eta informazio hori ikasle zein profesionalen hezkuntza prozesuak hobetzearekin zerikusia duten erabakiak hartzeko sortzen diren iritziak formulatzeko erabiltzen da.

2. Neurketa ebaluazioaren desberdintasuna

Neurtzea ebaluazioaren atal bat da, baina ebaluazioa esanahi zabalagoa dauka. Neurketa hezkuntzarekin zerikusia duen edozein egintzari buruzko informazioa (kuantitatiboa zein kualitatiboa) lortzea eta erregistratzera bideratutako ekintza multzoa da.

Ebaluazioa ordea, neurketa eta kalifikazioa bere baitan hartzen ditu. Eta hezitzaile zein hezigaien ikaskuntza prozesuak hobetzeko lana egiten du hauei proposamenak eskaintzeko.

3. EBALUAZIOAREN FASEAK

Ebaluazioa hiru fase ezberdinetan banatuko dugu. Fase bakoitzaren barruan urrats ezberdinak daudelarik:

1. Ebaluazioa planifikatzea

- Ikastetxean lehenik eta behin helburua finkatu behar da, hezigai zein hezitzaile jomuga zein den jakiteko. Familiak, honen inguruko informazioa jaso behar dute.
- Denboralizazioa. Taldearen proben eta ebaluazioen egutegia zehaztea.
- Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea edo erabakitzea (azterketa, portfolio...)

2. Informazioa biltzea eta jasotzea

- Beharrezko informazioa lortu eta honen araberrako proba egokiena hautatu.
- Informazioa aztertu, kalifikatu eta jaso.

3. Ikaskuntzak ebaluatzea eta emaitzak komunikatzea

- Hezkuntza prozesuen inguruko iritziak jaso, hauek bideratu eta hobetzeko erabakiak hartu. Ebaluazio frogetan jasotako informazioa eta unitate didaktikoaren ebaluazio irizpideen arteko alderaketa. Hauek koherenteak izan behar dira. Hasieran eskatutakoa bukaeran jasotzea.
- Ebaluazio emaitzak, ikasleen garapen integralak eta hezkuntza prozesuak hobetzeko hartuko diren neurriak komunikatzea (txostenak, familia/irakasleekin bilerak...)

4. Ebaluazio motak (guztiak)

Ebaluazio motak hainbat irizpideren arabera sailkatzen ahal ditugu:

Ebaluatutako arloaren eta ebaluazioaren hedaduraren arabera:

- Ebaluazio integrala*: Bizitzaren alderdi guztiei heltzen die (kognitibo, afektibo, sozial...) Egunerokotasuneko egoerei heltzeko beharrezkoak diren gaitasunak ebaluatzen ditu.
- Ebaluazio partziala*: Garapen integralaren arlo bat edo beste ebaluatzen du bakarrik. Bereziki alderdi akademikoa izaten da (kognitiboa)

Erabilitako paradigmen arabera:

- *Ebaluazio kuantitatiboa*: Osagai numerikoen bitartez egina.
- *Ebaluazio kualitatiboa*: Hezkuntza-prozesuak deskribatzen ditu.
- *Ebaluazio mistoa*: Aurreko biak modu osagarrian erabiltzen ditu

Ezartzen den unearen arabera:

- Hasierako ebaluazioa*: Hezkuntza-prozesu bat abiatu aurretik ematen da. (eduki berria hasi aurretik, ikasturte hasieran...)
- Prozesuaren ebaluazioa*: Prestakuntzari lotua, prozesuan zehar datuak era sistematikoan biltzea. Funtzionamendua baloratzea da proposatutako helburuak lortzeko aurretik ezarritako denbora tarte batean.
- Bukaerako ebaluazioa*: Ikaskuntza prozesuari emandako denbora tarte bukaeran datuak bildu eta baloratzea. Hasieran erabakitako helburuekin konparaketa egin.

Helburuaren arabera:

- Ebaluazio diagnostikoa*: Ikaslearen ezaugarriak, pertsonalak zein akademikoak ezagutzea. Modu honetan irakasleak estrategia didaktikoak diseinatu ahalko ditu ikasleen errealitatearen arabera
- Ebaluazio formatiboa*: Prozesuen jarraipena egiteko erabilia. Hasierako helburuak lortzeari begira, prozesua aurrea egin ahal moldatzen eta arautzen duen ebaluazioa da
- Ebaluazio sumatiboa*: Denbora tarte jakin baten bukaeran ezartzen da, nolabait tarte horretan lortutakoa eta proposatutakoa zenbateraino iritsi den egiaztatzeko.
- Metaebaluazioa*: Irakasleek hezkuntza prozesua nola ebaluatzen duten ebaluatzen eta hobekuntza proposamenak egitean datza.

Eragile ebaluatzaileak nongoak diren kontuan hartuta:

- Barne ebaluazioa*: Profesionalek ikastetxe barrutik sustatzen eta egiten dute.
- Kanpo ebaluazioa*: Ikastetxe edo erakundearen parte ez den beste erakunde/pertsona batek aipatutakoari egiten dion ebaluazioa.

Eragileen arabera:

- Autoebaluazioa*: Ebaluatzaileek haien lan propioa ebaluatzen dute erantzunkizun guztiak bere eginez. Auto-hausnarketa gidatuaren bidez egiten da tresnaren bat erabiliz.

-Heteroebaluazioa: Ebaluatu eta ebaluatzailea pertsona ezberdinak dira. Ikastetxean, honen pertsonalak berak egiten du ebaluazioa kanpo agenterik gabe. (Irakasleak euren ikasleak).

-Koebaluazioa: Maila berean dauden taldeko pertsonak elkar ebaluatzean datza. (Irakasle, profesional, ikasle)

Arauen arabera:

-Ebaluazio normatiboa: Konparazioan oinarritu egiten da. Ikasle baten errendimendua gelako batz besteko errendimenduekin alderatu egiten du edota administratibotik zehaztutako araukin alderatzen du.

-Ebaluazio kriteriala: Aldez aurretik zehaztutako irizpide eta helburuetan oinarritutako ebaluazioa da. Horretarako, lehenagotik ebaluazio adierazleak formulatzea eskatzen da, adostutako helburuak ikasleak lortu ote dituen erabakitzeko.

5. Zer da heteroebaluazioa?

Ebaluatu eta ebaluatzailea pertsona ezberdinak dira. Hau da, pertsona batek, beste baten lana/jarduna ebaluatzen du. Ikastetxean, honen pertsonalak berak egiten du ebaluazioa kanpo agenterik gabe. Hala nola: Irakasleak euren ikasleak edo zuzendaritza taldeak ikastetxeko alderdi ezberdinak.

6. Zer da metaebaluazioa?

Irakasleek Hezkuntza-prozesuak nola ebaluatzen dituzten eta hauek hobetzeko proposamenak egitea da. Ebaluatzeko ekintzaren inguruko gogoeta burutzea da. Modu honetan hezitzaile bakoitza bere jardunbide eta ikasleen errendimendua aztertzeko estrategiak hobetzeko aukera dauka. Akatsetatik ikasi eta indarguneetan baieztatuz.

7. Zer da ebaluazio partziala?

Garapen integralaren arlo bat edo beste ebaluatzen du bakarrik. Subjektua ikuspegi orokor batetik eta arlo ezberdinen eraginak kontuan hartu gabe egiten den ebaluazioa da. Honek perspektiba falta edo arazoan analisirako gabezia ekartzen ahal ditu. Bereziki alderdi akademikoa izaten da ebaluatu egiten dena (kognitiboa).

8. Autoebaluazioa, zertarako da baliagarria?

Autoebaluazioaren bitartez ikaslea helburu jakin bat lortzeko egin behar dituen aldaketez jabetzea eskaintzen dio. Ebaluazio aukera hau baliagarria da bai hezigai baita hezitzailearentzat ere.

Hezigaiari dagokionez, lehenik eta behin protagonismoa ematen dio bera delako ebaluazioaren erdigunea. Honekin batera, ikasleak egin dituen aurrerapen, lorpen eta zailtasunak bere buruari aitortzen dizkio. Azkenik, hausnarketara bultzatu egiten zaio, ikaskuntzaren aurrean dituen jarreraren inguruan pentsaraztera bultzatu egiten dio, jarrera kritikoa eta autonomia bultzatuz.

Irakasleari dagokionez, ikasleen autoebaluazioa hauen ikaskuntza prozesua berbideratu eta iritzi elementu hobeak jasotzeko balio dio. Era berean, ikasle bakoitzaren egoera eta hauen ikaskuntza prozesuak gertuagotik aztertzeo aukera ematen dio. Azkenik, autoebaluazioetan oinarrituz programa egokitzeko eta hobetzeko hautua egin dezake irakasleak, ikasleenganako beharretara subordinatuz.

3.5.B PRAKTIKA: Txinako ebaluazio sistema

1. Ebaluazio moten taularen arabera, deskribatu bideoan agertzen den ebaluazio motak:

Bideoan agertzen den ebaluazio ereduari dagokionez, aspektu ezberdinak kontuan harturik ebaluazio mota bat baino gehiagorekin identifikatu dezakegu eredu hau, hauen arteko nahasketa bat delarik.

Lehenik eta behin **ebaluazio kuantitatiboa** dela aipatzekoa da. Izan ere, emaitzak puntuazio numeriko baten bitartez adierazten da. Prozesua ez da kontuan hartzen eta bakarrik azterketan ateratako azken emaitza hartzen da kontuan, beraz ebaluazio eredu hau **ebaluazio sumatiboa** ere bada.

Era berean, **ebaluazio partziala** bezala ere sailkatu ahalko genuke. Izan ere, ez da ikaslearen garapen integrala kontuan hartzen baizik eta soilik arlo kongitibo / akademikoa hartzen da kontuan. Ardatza irakasgaiari jartzen da bestelako alderdi guztiak alde batera utziz.

Gerora, nork ebaluatzen duen kontuan hartuz, **heteroebaluazioa** dela suposatuz dezakegu. Izan ere, irakasleek ebaluatzen dituzte ikasleak eta ikasleak inoiz ez dute haien inguruko hausnarketarik egiten.

Azkenik, batetik **barne ebaluazioa** dela esan dezakegu, irakasleak zentro barruan egiten dutelako lan eta familiekin ere interakzio bat dagoelako. Baina aldi berean, ikastetxeen arteko ranking eta lehiakortasuna sustatzen duten ikastetxez kanpoko frogak egiten dituzte, gobernuko teknikariak sustatutako frogen bidez. Beraz, hein batean **kanpo ebaluazioa** ere badagoela esan genezake.

2. Ebaluazio mota hori desegokia bada, zein da zure hobetzeko proposamena?

Lehenik eta behin, nire uste apalean hezkuntza ez luke merkatura bideratua egon beharko. Hau da, dokumentalean haur horiek txikitatik ikasketetan erabat murgiltzen dira etorkizun oso urrun batean lanpostu ahalik eta hoberen bat lortzeko eta bizimodu eroso bat izateko. Nire ustetan hezkuntza, eta bereziki haurtzaroen, pertsona bezala garatu eta hezteko helburua izan behar du. Gizarte osasuntsu batek dituen baloreak landu beharko liriteke eta ez produkzioan oinarritzen den bat.

Horretarako, haurren garapen integrala kontuan hartzea eta alderdi guztiak lantzea beharrezkoa ikusten dut. Arlo kognitiboaz gain, fisikoa, ekintzailtzarena, soziala... ere lantzea beharrezkoa da. Izan ere, gizarte batean bizi garen heinean garrantzitsua da besteekin harreman sanoak ezartzen. Aipatzekoa da ere adimen emozionala lantzeko beharrezkotasuna. Honako arloa da dokumentalean agertzen diren haurrek kaltetuen dagoena. Izan ere, askok

txikitatik jada depresioa edota estresa bezalako arazo larriak dituzte. Eta gainera arazo hauek beste batzuk ekartzen ahal dituzte: bulimia, antsietatea....

Hauek ekiditeko, haurraren ongizate emozionalak zaintzea ezinbetekoa da.

Azkenean, haurra osasuntsu eta zoriontsu hezi eta hazi ahal izateko bizitzako aspektu guztiak landu behar dira, ikuspegi integral batetik beti ere.

4. HAUR HEZKUNTZAko ESPERIENZIA HEZITZAILEA

Oraingo honetan azalduko dudana haurren heziketa prozesuaren inguruko esperientzia bat izango da: “Hezkuntza berdea”ren inguruan mintzatuko naiz. Honetarako, Hazi Hezi hazi eta heziketa aldizkariaren 8. zenbakiko alean oinarritu naiz, 2014. urtean publikatua izan zena.

Gaur egungo espazioak aztertuz gero, argi ikusten da nola azken urteetan hiriak handitu, masifikatu eta gune berdeak porlanarengatik ordezkatu egin diren. Honek, gizakiok naturarekiko dugun harremana zailtzen du, gero eta urrunago baigaude bata bestetik.

Euskal herria ordea natura eremu zabal eta ezberdin ugari ditu: basoak, hondartzak, landa eremuak... Eta oraindik badaude haien seme-alabekin aisialdi denbora natura guneetara joaten diren familiak. Ordea, gaur egungo gizarte kontsumistara subordinatuz, gaur egun ere oso ohikoa da larunbat arratsaldea zentro komertzial edota merkantilizatutako aisialdi guneetan igarotzea (Txikipark, joku aretoak, zinema...).

Heike Freire pedagogoak ordea, “*Educar en Verde*” liburuan (2011) haurrak naturarekin kontatuan egotearen garrantzia azaldu egiten du. Hezkuntza berdea, naturara gerturatu eta haurrak naturarekin kontaktuan egoteko bitarteak jartzean datza, harremana erraztuz. Izan ere bere ustetan, natura eremuetan haurrek zentzumenezko esperientzia ugari izateko aukera dute, baita mugitzeko eta jolasteko leku ugari ere. Honek guztiak haiek gaitasun fisiko eta emozionalak garantzen lagunduko die.

Lehenik eta behin, naturak material ugari eskaintzen ditu: makil, harri, ur, lokatz... Hauek gaur egun bizi garen plastikozko errealitateari alternatiba eskaintzen dio. Izan ere, Freireren hitzetan errealitate konkretuarekin harremana izatea da zenbait gauza ikasteko modu bakarra. Espazio itxiak oso egituratuak daude eta haurrak ekintza zehatzak egitera bideratzen dituzte. Naturan ordean haurrek ez dute eginbeharraren estresik sentitzen eta haien egoera eta gogoen arabera milaka bide ireki ahalko dituzte naturako elementuekin

Garrantzitsua da aipatzea espazio itxietan ez bezala, espazio irekietan egotea haurrei askatasun sentsazioa sentitzeko aukera ematen zaiola (hainbeste aldarrikatzen den hori). Espazio irekietan haurra arau zehatzetatik urrundu eta bere espazioa sortuz ondokoarekin elementu batengatik borrokatzea ekiditen du. Askatasun sentsazioarekin batera haurra bere zereginean murgildu, kontzentratu eta autonomo sentitzeko aukera dauka, bere identitate propioa eraikitzearekin batera.

Askatasunarekin batera, natura lasaitasun eremu bat da: isiltasuna, baretasuna... Honek haurrari gaur egungo estresa eta antsietatea gainditzen eta bere zereginean arreta jartzen laguntzen dio. Arreta-falta eta hiperaktibitatea duten haurren artean, naturarekin kontaktuan jartzea nahastea bideratzen lagundu dezake.

Gaur egungo gizartearen beste ezaugarri bat azkartasuna eta presak dira. Gure egunerokotasuna baldintzatzen duen rutina batean erortzen gara, gure inguruan zer gertatzen

den erreparatu gabe. Gaur egungo kaleko argia, edozein jaki urte osoan zehar egotea, egun osoa espazio itxietan egotea... eguraldia bizitu edo zein urtarotan gauden ohartzea zaildu egiten digu.

Naturaren denbora ordea organikoa da, tempus mantsokoa. Ez da lineala baizik eta behin eta berriz itzultzen diren zikloetan oinarritzen da: ilargia, urtaroak, uraren zikloa... Presaka bizi garen gizarte honetan naturara hurbiltzeak beste erritmo bat eskaintzen digu, lasaiagoa, lurrarekin konektatzea ahalbidetuz.

Adibide gisa, haurrekin ortu bat lantzean: hazia erein, landarea hazi eta fruitua eman arteko zikloa behatu ahalko dugu. Modu honetan haurrekin pazientzia izatearen garrantzia landuko dugu, baita denborarekin harreman lasaiago eta pausatua izaten, erritmoak errespetatzen ikasiz.

Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi taldean, haur gehiegi ziren erabiltzen zuten espazio txikirako, beraz kanpoaldera ateratzea erabaki zuten. Geroztik, adin desberdinen haurren artean harremanak sendotu eta haurren artean gatazka gutxiago daudela ziurtatzen du taldeko kide den Amaia Etxabek.

Azkenik, gaur egungo gizartearen beste alderdietako bat beldurrarena da. Beldurraren gizaratean bizi garela esatean da, honakoa kontrol sozialerako harraminta erabili egiten dena (B. Glassner in Hazi Hezi, 2014). Gaur egun haurrak askoz kontrolatuagoak daudela agerikoa da, guraso askok ez diete espazioa errespetatzen eta ez diete bakarrik ibiltzen edo jolasten uzten. Izan ere, espazio ezberdinetan webcam-ak kokatzerainoko muturrera iritsi gara, denbora osoko kontrola egonik.

Aldi berean, naturarekiko beldurra sortu da gizaratean, arriskutsutzat edo meahatxailatzat hartzen delarik: lokatza “kaka”, euritan bustitzea katarroa hartzea... eta hau baimentzen duten gurasoak arduragabe bezala hartzen dira gaur egun. Askotan, helduen beldurrak hurrek euren autonomia eta babeserako ezinbestekoak diren gaitasunak eskuratzea eragozten diete, babesten saiatzen diren heinean babesgabe uzte ari dietelarik.

Baina honakoa deseiraikiz, naturarekin kontaktuan bizitzea haurra baita familiarentzako onuragarria dela frogatua dago. Honek naturak eskaintzen dituen plazeretaz gain, geldiago egotea, zentzumenei arreta jartzea, isiltasunaz gozatzea... eskaintzen digu. Baita eta erlaxaziorako, hausnarketarako zein introspekziorako espazioa eskaintzen digu. Azkenean naturarekin harremanetan egotea, gizarte kapitalista honen barruan hurruntze ari garen gure alderdi “animali”/“basatienarekin” konektatzea ahalbidetzen digu.

Familia esperientziarekin loturiko jardueren adibideak:

-Hostoen bilduma egitea: udazkenean, hurrekin basora joan, hosto ezberdinak bildu, zein zuhaitzakoak diren identifikatu eta album bat egitean datza.

-Perretxikoetara joatea: Perretxiko garaian hauen bila basora joatean, hurrek hauek bilatzea ikusmen jolasa bezala hartu ohi dute. Gainera lorpen handia da haien zenbat hartu dituzten ikustea. Gerora ere haiekin sukaldatzeko aukera ematen da.

-Txabolak egitea: Oso gustuko izan ohi dute haurrek txabolak eraikitzea lurrean zein zuhaitzetan. Naturako elementu zein etxetik ekarritakoak erabiltzen ahal dira (mandire). Hauek haiantzako intimitate espazioak izaten dira eta normalean heldurik gabekoa gustuko dute.

BIBLIOGRAFIA

Hik Hasi (2014ko udaberria): Heziketa berdea. *Haziera eta heziketa aldizkaria*.

Hemendik

eskuratua:

http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/07/1532347864-8.Hazi%20Hezi.pdf